

Año LII. urtea

130 - 2020

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Tokian tokiko mintzo
nafar batzuen egungo
egoeraz**

Gorka LEKAROS MAZIZOR

Tokian tokiko mintzo nafar batzuen egungo egoeraz

Acerca de la situación actual de algunas hablas vascas de Navarra

About the current situation of some Basque speeches of Navarre

Gorka LEKAROS MAZIZOR

Ikertzaile independentea

glekaroz@gmail.com

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv.130.6>

Jasotze data: 2020/08/25. Behin-behineko onartze data: 2020/10/03. Behin betiko onartze data: 2020/11/02.

LABURPENA

Lan honek helburu bikoitza du. Batetik, Nafarroan belaunez belaun transmititutako mintzo dialektalen hegoaldeko muga zein den erakutsi dugu. Bestetik, Aezkoatik Burundara muga bazterrean zehar mintzo horiek nolako bizitasuna duten aztertu da. Herri ugaritan oso ahulduta edo guztiz itzaltzear daude, eta beste batzuetan jarraipena azken hamarkadetan eten denez gazteak hizkera tradizionaletik urrundu dira; eremu horretan guztian euskararen gizaldiz gizaldiko transmisioak eredu estandarra du gaur oinarri, ez euskalkia. Herri gutxi batzuetan tokian tokiko mintzoen segida ez da oraino eten, baina transmisioa zailtzen duten oztopoak handiak dira.

Gako hitzak: Nafarroa; euskalkia; tokian tokikoa; transmisioa; hego muga.

RESUMEN

El trabajo que presentamos tiene un doble objetivo. De un lado, fijar el actual límite meridional de las hablas dialectales del euskera habladas en Navarra; de otro, mostrar qué grado de vitalidad presentan las hablas más meridionales entre el valle de Aezkoa y la Burunda. En muchos lugares se encuentran al borde de la desaparición, mientras que en otros tantos su continuidad se ha interrumpido durante estas últimas décadas y hoy ya no es el euskera dialectal, sino el estándar, el que está en la base de la transmisión intergeneracional. En unas pocas localidades de la zona estudiada la transmisión del euskera dialectal sigue produciéndose, pero se enfrenta a crecientes dificultades.

Palabras clave: Navarra; euskera; dialectal; transmisión; límite meridional.

ABSTRACT

The work we present has a double objective. On the one hand, to establish the current southern limit of the dialectal Basque speeches spoken in Navarre; on the other, to show what degree of vitality the more southern speeches present between Aezkoa and Burunda valleys. In many places they are on the verge of disappearing, while in other places their continuity has been interrupted during these last decades and today it is no longer the dialectal Basque, but the standard, which is at the base of intergenerational transmission. In a few places in the area studied, the transmission of dialectal Basque continues to take place, but it is facing increasing difficulties.

Keywords: Navarre; Basque language; dialectal; language transmission; southern border.

1. SARRERA. 2. PIRINIOA. 3. IRUÑE INGURUKO IBARRAK. 4. LARRAUN-LEITZALDEA. 5. SAKANA. 6. HONDAR HITZA. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Nafarroan gizaldiz gizaldi transmitituta bizirik dirauten mintzo tradizionalen eremua Zaraitzuko mugatik Burundaraino hedatzen da gaur. Lan honen asmoa eremu horren hegoaldeko muga zehaztu eta ertzean dauden hizkeren bizitasuna neurtzea da. Aezkoa, Luzaide, Erroibar, Esteribar, Anue, Ultzama, Atetz, Basaburua, Imotz, Larraun eta Sakana ditugu aztergai nagusi. Euskararen Legearen arabera eremu euskaldunekoak izanik irakaskuntzak bermatu du denetan euskararen ezagutza azken hamarkadetan¹, eta eskolak euskaldundutako hainbat hitzun hizkuntza belaunez belaun transmititzen hasi da. Lekuan lekuko mintzo dialektalen jarraipena, ordea, etenda edo guztiz kokolan dago herri gehienetan.

Eredu estandarra ez da saio honen helburua; haatik, ezin da azterketatik kanpo utzi. Euskalkia desagertzeaz dagoen lekuetan ez dago adinekoen mintzo tradizionalen eta gazteen mintzamoldeen arteko interferentzia nabarmenik, baina beste zenbait eremutan agerikoa da euskara batuaren hedapena tokian tokiko hizkeren bizitasunean eta iraupenean eragiten ari dela; eragin hori aztertzen ahalegindu gara. 2020an tokian tokiko mintzaira nafarren hegoaldeko ertzean zeuden 82 herrigunetako

1 Mintzo nafarren hegoaldeko ertzean barrena hamahiru dira ikastegiren bat duten herriak: Garralda, Luzaide, Erro, Iraizotz, Larraintzar, Jauntsarats, Lekunberri, Uhartte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi eta Urdiain. 2017/18 ikasturtean HHTik DBHra bitarteko 1766 ikasle biltzen zituzten, % 99,4 D ereduak. Bestalde, Iruñera ez ezik, hizkera nafarren egungo mugatik haratago dauden beste sei gunetara jo ohi dute eremu bazterreko ikasleek (Agoitz, Auritz, Aurizberri, Zubiri, Irurtzun eta Altsasura). 2017/18 ikasturtean herri horietan eskolaratutako 2780 ikasleatarik % 71,8 ziren D ereduak.

informazioa bildu dugu, baina aintzat hartu ditugu ertzetik haraindi euskalkia zeharo iraungita zuten beste 83 ere. Albiste gehienak 2017 eta 2020 bitartekoak dira; hala ez denetan adierazi egin dugu. Aurrez aurreko elkarrizketa gidatua izan da ahal bezain sarri datuak eskuratzeko bidea, ehundik gora berriemaile nagusi baliatu ditugularik. Izan dezakeen balioa haiei zor die lan honek; akatsak, aldiz, gureak baino ez dira.

Sortaldetik abiatu eta sartalderantz egin dugu Nafarroan barrena, lehenik eta behin Pirinioko argibideak eskainiz (§ 2), gero Iruñe inguruko ibarretakoak (§ 3), Larraun-Leitzaldekoak jarraian (§ 4), eta ondoren Sakanari dagozkionak (§ 5). Azkenik (§ 6) ideia batzuk nabarmendu ditugu laburbilduma gisa.

2. PIRINIOA²

Pirinioa Erronkaribartik Erroibarreraino hedatzen da Nafarroako Udal Mapa berrian (4/2019 LF); tokian tokiko mintzoen eremuan Aezkoa, Luzaide eta Erroibar daude. Etengabe hustu dira hirurak azken mendean, 1950etik populazioaren % 63 galdu dutelarik. XX. mendearen lehen laurdenean zaraitzura belaunik belaun ongi jaso zuten azken hiztunak XXI.aren hasieran desagertuta³, Aezkoan dago egun Nafarroako mintzaira tradizionalen ekialdeko azken muga.

Aezkeraren belaunez belauneko jarraipena etentzat eman behar da. Esku bateko haztekin zenbatu daitezke eredu estandarraz gain gurasoen euskara ere jaso duten 40 urtetik beherako aetzak; are bakanagoak dira ibarrekoa besterik ez dakiten 50 urtekoak. Horretaz gain, 40 urte inguruko ariatar bat edo beste umetan euskalkia jasotzen hasi baina egun ez da hizketarako trebe; 40-50 urte bitarteko horrelako aleren bat ere bada, Abaurregainean oroz gain. Adinekoak dira aezkera hiztun gehienak, hirurogei eskas ibar osoan⁴, eta bakar bat ere ez 30 urtez beheitikoa.

2 Atal honetako berriemaile nagusiak honako hauek izan dira: Angel Aintziburu (1930-2019), Maite Ancho, Bittor Aroskoa, Patxi Arrikaberri, Maitane Burusko, Leoncia Conde, Alfredo Dufur, Anabel Elizondo, Faustina Galduroz, Teresa Iribarren, Amparo Lorea, Claudia Merino, Alberto Nagore (1932-2017), Alejandro eta Josefina Otheguy, Carmenchu Otheguy, Julio Reza (1928-2020), Ion Retegi, Ione Villanueva eta Mirari Zabalza. Zorretan gaude duela zenbait urte elkarrizketatutako Santiago Agorreta uretarrarekin (1921-2013), Orreagako priore ohi Patxi Izkorekin eta kolegiatako artxibozain izandako Emilio Lintzoain eugiarrarekin (1926-2018). Koldo Albirak eta Koldo Iribarrenek datu interesgarriak gehitu dituzte.

3 Baleko hondar zaraitzura hiztun gehienak 2000 eta 2010 artean desagertu ziren. Otsagabian Florencio Sanzet Ador (1922-2001), Teófilo Eseberri Contín (1915-2002), Basilio Urrutia Mancho (1909-2003), Basilia Contín de Carlos (1917-2007) edota José Contín Esarte (1924-2009); Jaurrietan Salvador Karrika Karrika (1903-2000), Marikruz Esarte Esarte (1916-2004) edo Pedro Eseberri Karrika (1919-2005); Espartzan Nicolás Elarre Senberoi (1902-2000) edota Antonia Gartzia Loperena anderea (1913-2002). Azken hamar urteotan zendu dira euskara maketsago gorde baina askotxo harrapatzera heldu ziren zenbait zaraitzuar, eta bada oraindik gero eta kondar apalagoak gogoan dituen adinekorik.

4 853 biztanle bizi ziren 2019an Aezkoako bederatzir herrietan. Tokian tokikoari gehien eutsi diotenei dago-kienez, Abaurregainak 126 bizilagun zituen, Ariak 51 eta Hiriberrik 102.

Ibarreko haurrak D ereduan eskolaratzen dituzte⁵ eta euskara estandarra besterik ez dute jasotzen. Haur zein gazteek hizkuntzaren aldeko jarrera dute oro har; nolana ere, gutxi erabiltzen dute euskara. Eskolak euskaldundutako gazteak eta adineko euskalkidunak dituzten familietan alde handia egon ohi da batzuen hizkeratik besteenera, eta gaztelaniaz egiten diote sarritan elkarri. Amildegi hori samurtu eta mintzo zaharra guztiz galtzera ez uztearren aezkera eskolak eskaini dira azken urteotan; horrezaz gain gazte euskaldunen eta adineko euskalkidunen arteko solasaldiak antolatzen dira aldi berean, gazteek aezkera hitzunen mintzotik edateko eta biharko euskarak atzokoaren kutsuren bat gorde ahal izateko.

Euskalkia guztiz iraungia dago Aezkoako herri batzuetan. Garaioako, Abaurrepeko eta Aribeko⁶ mintzoa ikasitako euskaldun zaharrik inon bizi denik ez du ematen, azken bietan bereziki hondarrekoak aspaldixko desagerturik; aezkeraren arrastoa zeharo apala da dagoeneko Garraldan, Orbaran eta Orbaizetan. Abaurregainean, Arian eta Hiriberrin iraun du batez ere ibarreko mintzoak. Ez hiruretan neurri berean, Arian bizixeko baina herri bakar batean ere ez sendo, eta egunetik egunera geroago eta makaltzenago.

Aezkoako euskarari ongi moldatzen ziren hogeiki lagun identifikatu genituen Abaurregainean 2017-2018etan. 55 urteko bakar bat eta 70 urtetik goitikoak gainerako guztiak, baten batzuk osasunez makal edota euskara aspaldian ia erabili gabeak; lan hau idazten amaitzerako desagertua da bat baino gehiago. Euskara ongi jasotzera heldu ez edo umetakoa ahantzi duten 40-60 urte bitarteko herritar batzuk oso nekez mintzo dira, eta besteren batek ulertzen du baina ez da elekatzeko gauza. Ez adin tarte horretan soilik; bada euskara aditu arren solastu ezin den 80 urte inguruko abaurregaindarrik. Etxeren batean, aezkera maiz entzunda triskun-traskun mintza daitekeen 20-30 urte bitarteko gazteren bat badela ematen du. Euskalkia oso gutxitan entzuten da karrikan. Orotara, belaunez belaun jasotako hizkera guztiz ahantzi ez duten Abaurregaineko hamahiru etxeren berri dakigu; herriko guztien laurdena ere ez dira.

Arian ere, 1960ko hamarkadara arte haurrak aezkeradun izan zirelarik, dozena bat etxetako hogeiki lagun inguru ziren 2017an aetzen euskara biribil edo txukun eman zezaketanak. 65 urtetik gorako ariatar guztiek jaso zuten umetan ibarreko hizkera; handik aitzinako etena bortitza izan zen. Badira hitzun adintsu horien artean euskara erabili ez ezik arrent maite dutenak, baina kanpoan bizita erabiltzeari utzi diotenak ere ez dira gutxi; adineko batzuek –ez gehienek– oso kamustuta dute aezkera. Gazteagoek ez dute, oro har, ibarreko euskararik ikasi. Ongi menderatzen duen 30 urte inguruko herritar bat dago, eta beste bik-edo batuarekin nahasirik ematen dute. Gainerako adin-kide euskaldunek eta hitzun gazteagoek eskolako eredu estandarra baino ez dute hartu.

5 Garraldako ikastetxeak HHTik DBHra bitarteko 95 ikasle zituen 2017/18 ikasturtean. Garraldan ez ezik Luzaiden, Auritzen, Aurizberrin, Erron, Ezkarozen, Otsagabian eta Erronkarin ere bada ikastegirik Pirinioan zehar: 374 ikasle daude guztira, % 90,9 D eredukoak. Nolanahi ere, gogoratu beharra dago ingurune erdaldun(du)etan ez direla beti elkarren ondotik heltzen D ereduan eskolaratzea, euskara maila egokia erdieste eta hari eustea (ik., hau dela eta, Kasares, 2014, 296. or.).

6 Hirurogeita hamar urte inguruko ariatarrek gogoan dute gaztetan Aribera jaisten zirenean ia ez zutela izaten euskaraz norekin aritu.

Hiriberriko bizilagun adintsuenen esanetan gerrak ekarri zuen euskararen behin betiko gibelamendua. Ordura arte euskarazko dotrina izan zuten hurrek, baina gerraostean apaiz euskaldunak izanik ere ez zuten erdara besterik ezagutu; Aragoiko maisuen oihartzuna jaso dugu herrian⁷ eta adinekoek karrikan euskaraz egin arren erdara nagusitu zen seme-alabekin eta haurren jolasetan. Handik harat katea ez zen guztiz eten, baina gero eta ahulago berritu zen. 2017ko udan hamar bat ziren aezkera gutxi ala asko baliatzeko ohitura zuten hiriberriarrak; 60 urtetik gorakoak gehienak, nahiz eta baziren 36 urtera arteko gazteago gutxi-gutxi batzuk ere. Horrez gain, aspaldian aritu ezak higatuta zuten beste hiruzpalau adineko euskara. Arian ez bezala, erdaldun urtetsu askoak daude Hiriberrin; aezkeraren transmisioa ez zen une jakin eta bakar batean eten. 30 bat etxe ditu herriak eta hirutik batean irau du nola edo hala ibarreko mintzoak; edonola ere, oso lantzean behin baino ez da entzuten. Gazte elebidun gehien-gehienak batu hutsaren gorpulean euskaldundu dira; euskalkia ongi ulertzen dute etxean entzun dutenek, eta senitartekoen aezkera pizar zenbaitez zipriztindutako batuan aritzen dira, baina aitona-amonek urrun sentitu ohi dute biloben mintzoa, batzuek ez dute aise ulertzen, eta gazteekin erdaraz aritu ohi dira; are gehiago aspaldian astindu gabeko euskara erdara baino nekezago darabiltenak. Gutxik hautsi dute belaunaldien arteko horma hori alde batean zein bestean; euskararen barruko errealitate desberdinak dira.

Aipatu herrietatik kanpo gero eta lan gaitzagoa da eredu dialektalari eutsi dioten aetzak topatzea. Garraldan, gerraostean bide askotatik heldutako aurkako giroak ito zuen euskara (Etxegoien, 2018, 66. or. eta ondorengoak); eskolaren zein euskaltegiaren lanaren ondorioz garraldarren % 40 inguru jo daiteke gaur euskalduntzat, baina eredu estandarra da hiztun gehienek dakiten bakarra. Euskalkia gorde duten adineko euskaldun zaharrak dozena erdi baino ez dira, azken urteotan zenbait desagertu eta gero; dena den, 1980ko hamarkadan aezkera erabiliz egin zen berreuskalduntze ahalginari eta gaurko ekimenei esker badira eredu estandarra ibarrekoaz gutxiago ala gehiago aberastu ahal izan duten herritar gazteago batzuk. Orbaran aspaldikoa da ibarreko hizkeraren gibelamendua karrikan zein etxe gehienetan eta hiztunen arrastoa ia guztiz galdua da gaur, euskalkia ederki menderatzen zuten zenbait orbaratar mende honen hasieran hil ondoren. Herriko bi etxetan transmisioa ez zen gerra ondorean eten eta 70 urtetik gorako hiru lagunek eutsi diote gaur arte arbasoen euskarari; hiztun horietako bat jaioterritik urrun bizi da eta bigarren batek Aezkoatik haratagoko ukitu eta guzti gorde du, Iparraldean ibili baitzen. Ez da aezkera hiztun gazteagorik; badira ordea euskara eskolan ikasitako helduak. Gazteak aski gutxi dira herrian. Orbaizetan, azkenik, aezkera guztiz itzali ez bada ere, bistakoa da ibarrak landako mintzoen arrastoa. 50 urtetik goitiko hemeretzi bat hiztun bizi ziren 2017an, baina gehienek mendiez bertzaldeko euskara zekiten, Nafarroa Behereko arbasoak izateagatik –Larraun auzoan, batik bat– edo Iparraldean artzain ibilita euskaldundu zirelako⁸ –adineko gizon bana Larraunen, Olan eta Larrakan–. Orbaizetako gune nagusiko bi etxetan baino

7 Maiorak dioenez (2018, 41. or.), Burgosko maisu heldu berria zegoen 1947an, euskararen aurkakoa hura ere.

8 Garazi eta Aezkoaren arteko harremanarengatik Orbaizetan hedatu zen bereziki –eta gizezkoen artean– herriko euskara eta baxenabartarra alde edo moldez nahastea (Etxegoien, 2018, 70. or.). Aipatu harremana eta Aezkoako mintzoaren gibelatzea sakon aztertu ditu Caminok (1997).

ez du iraun gaur arte, arnasestuka, Aezkoako mintzairak. Etxe horietakoak dira herriko hondarreko hiztunak, lau bat guztira, 75 urtetik gorakoak eta euskaraz aritzeko ohiturarik ez dutenak. Hurbileko beste herri batean gisa bereko bosgarren hiztun bat bederen bada.

Auritz zein Orreagako hizkera tradizionalak desagertu egin dira. Auritzen, 1950 aldera, gazteak ordurako erdaldundurik, soldaduska herrian egiten ari ziren luzaidarren ondora biltzen ziren gizonezko helduak mus jokoan, haiekin euskaraz egin ahal izateko. Hirurogeita hamar urte igarota, bada oraino umetan euskaradun hazi eta urteen poderioz haurtzaroko mintzoa atzendu duen oso adin handiko auriztarren bat, baina zahartzarora arte ongi eutsi zioten azkenak mende honen lehen urteetan joan ziren⁹. Orreagako euskararen hondar lekukoa 2011n zendutako Ramontxo Etxeberria Etxabarren izan zela ematen du; 90 urtetik goitiko bi andere orreagatar euskaldun bizi ziren 2020an, baina Luzaideko amek euskaldunduak. Auritz eta Orreaga lagun askoren pasabide izateak erdalduntze goiztiarra eta hizkera nahasketa eragin zituzkeen (Irizar, 1992, 431-432. or.). Horrenbestez, Aezkoatik ezker Luzaiden ezarri behar da tokian tokiko mintzoen muga. Euskalkiaren gizaldiz gizaldiko jarraipena ez dago han guztiz etenda; bai ordea aspaldian ahuldua.

Elizaldea karrika da luzaidarrendako, gunerik jendetsuena¹⁰. XX. mendearen erdialderako hasia zen bertan hizkuntza aldaketa. Kanpotar erdaldun ugari zegoen (maismaistra guztiak, konparazione) eta zenbait etxetako biztanleek ez zekiten euskararik¹¹: Luzaideko erdigunea erdaraduna zen. Orduz geroztik beste etxe batzuetan ere ihartu da hizkuntzaren jarraipena, inguruaren presioak edota interes ezak eraginik¹², baina euskalkiari gutxi-asko eutsi dioten etxeak gehiago izan dira galdu dutenak baino, eta belaunik belauneko segida ez da oraino agortu. Duela hirurogei urte baino gehixeago entzuten omen da euskara Elizaldean, eta herrikoa izan ohi da heldu zein adinekoen ahotan dabilena. Gurasoen mintzoa ikasi eta euskaraz eskolatu ez ziren 40 urte inguruko elizaldearrek euskalkiari eutsi diote, eta baita hiztun gazteago batzuek ere. Horrezaz gain, mende hasiera honetan zehar euskararekiko atxikimendu kontzientea handitu dela ematen du. Duela zenbait hamarkada bizizale euskaradun askok betidanik ezagutu zuten mintzaira zelako erabiltzen zuten euskara, baina egun hizkuntzarekiko lotura afektiboa estuagoa da eta zenbait gaztek euskalkira hurbiltzeko interes biziagoa dute.

9 Bautista Urtasun Domench (1912-2004), Joaquín Cilveti Arostegui (1916-2006) edota Margarita Irigarai Errea (1908-2007).

10 Luzaideko 329 biztanleetarik 168 bizi ziren Elizaldean 2019an.

11 Garraiolari, ostalari eta dendariak ziren oro har erdaldun Elizaldean; ohikoa zen euskara ez transmititzea gurasoetako batek ez bazekien (ik., hori dela eta, Sánchez-Carrión, 1972, 165. or.).

12 Ez nahitaez gurasoen interes eza; herriguneko etxe batean baino gehiagotan aita-amek euskaraz eginek seme-alabak gaztelaniaz erantzutera ohitu ziren.

Hala eta guztiz ere, Luzaideko mintzoaren egoera ez da batere ona¹³. Elizaldean gutxi dira euskalkia belaunez belaun jaso duten gazteak; zenbaitek ez dute sobera erabiltzen. Euskara entzuten den arren, erdarara jo ohi da karrikan erdaldunik egonez gero, eta ez dagoenean ere aski ohikoa izaten da. Gazte euskaldunetako batzuek, bestalde, Iruñe aldean hartu dute bizibidea eta kanpoko bikoteen jarrera ez da beti euskararen aldekoa. Auzuneak karrika baino euskaldunagoak izan ziren joan den mendean zehar eta hori ez da aldatu, baina gero eta biztanle gutxiago dituzte eta etxe asko hustu dira¹⁴. Gainekoletan egin izan da aspaldian gutxiago euskaraz; beste guneen artean ez dago alde handirik.

Herriko mintzoaren geroari begira, bistan dena, garrantzi handikoa da guraso euskaldunak dituzten haurren hizkuntza sozializazioa. Eskolak hamahiru ikasle zituen 2019-20 ikasturtean; bostek baino ez dute Luzaideko hizkera dakien gurasorik¹⁵. Aita zein ama horiek etxean ikasitako euskara ari omen dira seme-alabekin erabiltzen, baina ez da erraz jakiten ahal zenbateraino errotuko den haurrengan, heldu zenbaitek euskaraz egiteko ohitura handirik ez izateaz gain aitatxi-amatxi asko gaztelaniaz aritzen direlako bilobekin. Eskolan Luzaideko mintzoa neurri batean bederen baliatzeko ahalgina egiten ari da duela zenbait urte –hiztegi mailan, batez ere–, nahiz eta irakasleen jatorri anitza oztupo den. Horrekin batera, alabaina, askoz ekimen berrizalegoa jarri zen abian 2016an: 12 urtera arteko eskola haur luzaidarrak eta Arnegikoak elkarrekin eskolaratzen hasi dira herri batera zein bestera mugituz; euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez ikasten dute. Arnegin 2016ra arte irakas hizkuntza bakarra frantsesa zenez haur euskaradun arnegiarrek Garaziko mintzoa daramate Luzaidera, eta Arnegiko irakasleak ere ingurukoak izan ohi dira. Iraunez gero, proiektu hori euskalkia Luzaideko haurren baitan indartzeko bidea izan daiteke, guztiz ere etxean jasotzen ari direnentzat. Bide meharra, ezinbestean, herriko haur gehienak euskara eskola bidez bakarrik hartzen ari direlako, eta batzuek zein besteek, koskortzean, Garraldara jo eta eredu estandar hutsean jarraituko baitute ikasten. Luzaideko mintzo tradizionalaren belaunez belauneko segida ez da beraz zeharo elkortu, baina ez du etorkizun errazik izango.

Erroibarko hizkeraren jarraipena ia guztiz etenda zegoen XX. mendea hasi zenerako; handik harat herri batzuetako etxe jakinetan baino ez zen euskalkia transmititu. Ibarreko mintzaira bizitzaren hondarrera arte eman ahal izan zuten azken

13 Santaziliak (2009) agerian jarri zuen Luzaideko gazteek adinekoen oso antzeko euskara zerabiltela eta berrikuntza gaitasun murriztuz hura herriko hizkeraren ahuleziaren ondorioztat jo zuen; Artzelusek berriki azaldu duenez (2019), berriz, estandarrak eta inguruko erdarek eragin nabarmena dute gazte luzaidarren euskararen.

14 Gaiñola, Gainekoleta, Azoleta, Pekotxeta eta Bixkar hartu ditugu kontuan, Bentetan ez baita gaur familia luzaidarrik. Lehen hirurak lauzpabosna etxe baino ez dira gaur; Pekotxetak zortzi bat ditu, adineko jendea soilik bizi delarik. Azoletan ez da haurrik. Elizaldearen egoera ez da askoz hobea, baina ez da baserri guñeak bezain nabarmen hustu. Herrigunea erdaldunagoa izatea eta baserri-bordak euskarari luzeago atxiki izana behin baino gehiagotan agertuko da ondorengo orrialdeetan ere, esate baterako Eugin, Aritzun edo Uharte Arakilen. Irurita dela eta, ik. Kasares (2014, 178-181. or.).

15 Ohart bedi etorkin zenbait heldu direla Luzaidera mende honetan (latinoamerikarrak, portugaldarrak eta afrikarrak batik bat), familia eta guzti gero eta sarriago. Familia horietako seme-alaba batzuk herrian bizi dira ume-umetatik; Luzaiden eta euskaraz ikasten dute. Koskortuago herriratu diren beste batzuk, ordea, Agoitzera igortzen dituzte gaztelaniaz ikas dezaten.

adinekoak –nola edo hala eman ere, batzuetan– joan den gizaldi amaieran desagertu ziren Ardaitz, Esnotz, Bizkarreta, Orondritz, Aintzinoa eta Loizun. Are lehenago Erron, 1970eko hamarkadan edo¹⁶. Gurbizar eta Urniza etxaldeetako azken hiztunak ere XX. mende akaberan hil ziren, eta XXI.aren hasieran Larraingoako hondarrekoa. Transmisioa pitzatu ostean etxeko euskara ozta-ozta harrapatu eta mendiez haraindiko artzainekin solasean hobetu zuten zenbait erroibartar azken urteotan zendu dira¹⁷. Gaur hiru herri (Lintzoain, Mezkiritz, Zilbeti) eta baserri bat (Mezkirizko Ureta) ditugu ibarreko euskararen azken gordailua.

Lintzoain zen duela ehun urte Erroibarko herririk euskaldunena. Sendi gutxi batzuetan hagitz berandura arte izan da euskara ohikoa, baina etxe bakar batean ere ez zen gerraostean transmititu. 2017an bizpahiru baino ez ziren ibarreko hizkera eman zezaketen adin handiko lintzoaindarrak, beste batzuk aurreko urteetan desagertuta.

Azken hamarkadetan, antza denez, hiru etxetan baino ez da gertatu Erroibarko mintzoaren belaunez belauneko segida. Mezkiriz eta Uretako etxe banatan bizi dira mende honetan hildako Juana eta Santiago Agorreta Garde anai-arreba euskaldunen 45 eta 70 urte bitarteko ondorengoak; gurasoen hizkera jaso eta gazteagoei irakatsi diete. Gazte horiek, oro har, ibarrekoan zein batuan moldatzeko gauza dira. Amerikan bizi den adineko senide batek ere etxekoari eutsi dio. Zilbetin, berriz, *Anso* etxean izan zuen jarraipena euskalkiak gainerako guztietan gerra baino lehen transmititzeari utzi eta gero. Hori dela eta 85-90 urteko hiru senidek Erroibarko euskara jaso zuten, eta hiruretako baten 50 urte inguruko seme-alabek ere bai. Batek ibarreko hizkera baino ez daki eta gainerakoek eredu estandarra ere ikasi dute; bilobek biak beretu dituzte. Hemen aipatutakoez lekora, ibarretik kanpo sakabanaturik, bada euskara gurasoen ahotik ikasitako adin handiko erroibartarren bat edo beste.

Erroibartik zein Aezkoatik beheiti hedatzen den Pirinioaurrean barrena, Artzibarko eta Orotz-Beteluko euskaraz aise mintzo ziren azken hiztunak 1980 eta 1995 bitartean desagertu ziren; arrietarrak eta hiriberriarrak ziren gehienak, baina ez denak¹⁸. Zenbait lagun hil ziren urte haietan¹⁹ Imizkotz, Azparren eta Lusarretan gaztaroko euskara ahantzirik, edo sekula ongi harrapatu ez eta pizar handi samarrak jasota. Umetan

16 Salbuespentzat jo daitekeen transmisio kasu berankor bat ezagutzen dugu Erron, dena den. Herriko borda batean hazitako bederatzi haurrek euskara jaso zuten 1920-30etan, 1939an familiarekin Usetxira alde egin baino lehen. Errokoa zuten ama eta Uretakoa aita. Bederatzi seme-alaba haietako bat bizi da oraindik eta zahartzarora arte euskarari ongi eutsi dioten beste batzuk berriki hil dira.

17 Haietarik zen, esaterako, Aurizperriko Florencio Erro Ibarra (1929-2018).

18 Nagoreko Juan Echavarren Ibáñez (1890-1987) euskal hiztuna zen, José anaia (1887-1977) bezalaxe. Euskara Arrietako ama izateagatik jasoko zutela pentsa daiteke, baina bien herrikide zen Lucía Garralda López ere (1881-1960) euskaldun hazi zen, Nagore eta Azparrenko aita-amak izanik. Artzibar hegoaldeko sendi batzuetan XIX. mendean oso aitzinera arte iraun zukeen transmisioak, baina ez zen ohikoena izango, 1916an «Eki» izengoitidun berriemaileak *Napartarra* aldizkarian adierazitakoaren arabera: «Beko errietan zaarrak baizik gure eskuaraz mintzaten (sic) direla egia da, ordez Irati-errekaldean ta seierrietakoak ze mintzoa erabiltzen dute? Ez eskuara?» (*Artzibar*-tik, 1916-10-28). *Seierriak* Lusarreta, Zaragueta, Arrieta, Hiriberri, Urdirutz eta Imizkotz zirelakoan gaude.

19 Eta are beranduago ere; Aitor Aranak, adibidez (2004, VIII), 2001ean euskaraz ehun arte zenbatzeko gauza zen gorraiztar baten berri eman zuen.

ibarreko euskara inguruan izanik helduaroan ongixko eman zuen hondarreko artzibartarra Hiriberriko Soledad Arboniés Etxamendi izan zen; 2017an hil zen, ia ehun urtetan. 1970eko hamarraldian ez zegoen guztiz iraungia Lizoainibarko Galdurotz eta Zuntzarrengo hizkera; Urraulgoitiko Elkoatzen zein Aietxun joan den mendearen erdialdera arte bizi izandako hiztunak identifikatu ditugu.

3. IRUÑE INGURUKO IBARRAK²⁰

Eskualde zabal honetako Esteribar, Anue, Ultzama eta Atetz bakarrik sar daitezke gaur tokian tokiko mintzoen eremuan. Nabarmen hustu ziren aipatu ibarrak XX. mendean zehar, 1950etik 2001era populazioaren % 40 galduz²¹.

Iruñe ondoko herri askotan bezalatsu, Esteribar hegoaldekoetan XIX. mendearen bigarren zatian zehar eten zen euskararen katea²². Ibar erdialde eta iparraldeko herri zenbaitetan, aldiz, transmisioak XX. mendera arte iraun zuen²³: 1990 eta 1995 bitartean zendu ziren Koldo Artolak topatutako hondar hiztun saigostar, agorretar eta urtasundarrak, eta 2006an hil zen Ezkirozko Domingo Bizkai Santesteban, ausaz Esteribar erdialdeko euskararen azken lekukoa. Leranotzen iraungi berri da behinolako mintzoaren oihartzuna, hondarreko hiztuna 2017an desagertu baita²⁴.

Lan hau amaitzean Usetxin –ozta-ozta–, Eugin eta Iragin bizi zen Esteribarko mintzoa. Lehen bietan adinekoak dira nafarrera hiztun guztiak. Iragiren nondik norakoa aski berezia da, inguru zabalean transmisioari hobekien eutsi dion herria baita, bere ttipian.

Eugi hagitz euskaraduna zen joan den gizaldi hasieran eta hizkuntzaren jarraipena sendoa izan zen gerrara arte²⁵. Handik aurrera gertatu zen etena herrigunetik hasita, ordu hartako bordari eugiarrak euskaldunagoak baitziren karrikako biztanleak baino. Gaur euskalkiari ongi heldu dioten herritar gehienak 80 urtetik aitzina dabilta, bakan

- 20 Iruñerriko gain, eskualde honetara bildutako udalerriak Anue, Atetz, Belaskoain, Bidaurreta, Esteribar, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Goñerri, Itza, Lantz, Odieta, Olaibar, Ollaran, Oltza, Txulapain, Ultzama, Zabaltza eta Ziritza dira. Ondorengo hauek izan dira gure berriemaile nagusiak: Juan Aleman, María Artazcoz, Joxe Anjel Azpiroz, Felipe Beuntza, Javier Billabona, José Luis Borda, Jesús Equiza (1930-2018), Ignazia Erbiti, Bernarda Etxeberria, Fermín Garciriain (1940-2020), Felipa Goyeneche, Iñigo Ibarra, Miguel Ibarrola (1930-2019), Kontxi Iraizotz, Maite Larrayoz, Javier Lecumberri, Aitor Lesaga, Estibaliz López, Luis Miranda, Javier Munarri, Cristina Nazabal, Juan José San Martín, Maribel Seminario, Aiora Telletxea eta Graciosa Villanueva. Juantxo Erbitik emandako laguntza eskertu nahi dugu.
- 21 Ordutik, Esteribarko Olloki herriaren hazkunderengatik batik bat, populazioak gora egin du.
- 22 1870 aldera ez zen dagoeneko euskararik Uharteko kaleetan; bai ordea Eguesibarren eta Ollokin (Irigarai, 1965). Bonaparteren mapan (1863) sasoiko ageri da euskara Esteribarko herri guztietan, Ollokin bertan eta Arletan izan ezik.
- 23 Zubiri erdalguneko goiztiarra izan zen; 1910erako ez zen ia euskararik entzuten. 1903an sortu Catalina Recalde saigostarraren ama zubiriarrak bazekien euskaraz «beño ez aunditz» (Artola, 2017, 316. or.).
- 24 1939an jaiotako Joaquin Mari Lusarreta Lintzoain, hain zuzen. Beti-beti euskaraz egiten zion osabarekin gaztetarik artzain ibiltzeagatik euskaldundu zen.
- 25 1920an sortu berriemaile garruestar baten iduriko, hamazazpi urte zituela Eugin ibili zenean euskara besterik ez zegoen non-nahi: «En Egüi, en las fiestas ¡bueno! allí no había castellano en la mesa».

batzuk 70 urte ingurukoak dira eta gazteenak hirurogei ditu. Dozena inguru ziratekeen guztira 2019an, aurreko bi urteetan lau bederen desagerturik, baina ez da aise kopuru zehatza ematea. Izan ere, zenbait adineko bakartuta bizi dira, zahartzaroko ajeen ondorioz batzuk ez dira umetako euskaraz ongi mintzatzeko gauza, eutsi dioten beste batzuek gaztelaniaz egin ohi dute hurbileko euskaldun zaharrekin, eta 60-70 urte inguruko eugiari ugarik euskalkia gaztetan beretu baina atzendu egin zuten ondoren, baten batek eredu estandarra bere kabuz ikasi duelarik. Laburbilduz, bizitza publikotik aldentu zen euskalkiaren hiztunak ere ‘desagertuz’ joan dira eta honengatik guztiagatik zaila da berriemaileentzat haien auzo batzuen hizkuntza gaitasuna neurtzea. Herriko mintzoa baino hagitzez gehiago entzuten den eredu batuak arnasberritu du euskara Eugin, baina herrikoa azken hatsetan dago.

Iragiko bi etxetan besterik ez da gaur bizilagunik²⁶ baina isolamenduak eta transmisioaren aldeko kontzientziak eraginda Esteribarko mintzoaren segida ez da herrian eten. Adinekoek dakiten euskara bakarra ibarrekoa da; gehienek irakatsi ere egin dute eta euskara hori bera da helduek gorde dutena. 30 urtetik beherakoek eskolaren eraginez eredu estandarrentzat egin duten arren herrikoa ere badakite, eta egokiera helduek erabiltzen dute; edadekoekin, batez ere. Euskalkiaren transmisioak bizirik iraun du beraz Iragin, inguruan beste inon ez bezala, baina horren herri ttipia izanik oso lagun gutxi jaso dute azken urteotan. Usetxin sortu eta hazitako nafarrera hiztun bakarra ezagutzen dugu, 85 urtetik goitikoa²⁷.

Anueko mintzaira ia guztiz isildu dela esan daiteke. 1920 ingururako hondatzeaz zegoen transmisioa ibarrean zehar ia non-nahi²⁸; Aritzun soilik iraun zukeen puska batez, eta han ere bordetan herrian baino gehiago. Azken urteotan zundu dira mintzo tradizionalaren hainbat lekuko anuetar, haietako zenbait behinola ikasitakoa guztiz kamusturik. Burutaingo azken euskalki hiztuna joan den mende hondarrean hil zen; Etsain eta Egozkuekoak 2000 eta 2010 bitartean. Etulaingo hizkeraren oihartzuna ere gizaldi honetan itzali da, eta duela urte gutxi bizi ziren txikitako euskara ahantzita adin handiko etulaindar batzuk. Bizitza osoan zehar euskaradun izandako Martina Loperena Bengoetxea eta Victoriano Erize Iturria leazkuetarrak 2013-2014etan joan zitzaizkigun. Olaguen, Pedro Senosiain Etxarri 2020an desagertuta, ez omen da herriko hizkera gorde duen beste inor. Aritzuri dagokionez, euskalkia ibarrean ikasitako 75 urtetik gorako bi andere baizik ez ditugu identifikatu; hirugarren bat 2020an hil da, Lanzko mintzairaren azken lekukotzat genuen Julian Beuntza Ilarregi bezala.

Ultzama ere hizkera nafarren eremu bazterrean dago gaur. 2019an itzalia zirudien ibarreko mintzoak bi herritan. Gainerakoetan, aldeak alde, guztiz etenda edo etetear dago transmisioa: gazte gehienek eta ia haur guztiek batua baino ez dute hartu, nahiz eta eredu dialektalaren doinuak arrastoa utzi duen han-hemenka.

26 23 biztanle zituen herriak 2019ko erroldaren arabera.

27 Usetxi dela eta, hiztun horretaz gain, har bedi gogoan 16. oharrean adierazitakoa.

28 Beste leku askotan bezala, Anueko Etsainen behintzat zerikusi handia izan zuen XX. mendearen hasieran herriko maisuaren jokabideak (Bidador, 2001, 131. or.).

Etxean Ultzamako euskara jasotako zenoztar nahiz lizasoarrak ez dugu topatu. Lizasoko hondarrekoak XX. mendearen akaberan desagertu bide ziren, haurtzaroan berretutakoa urteen poderioz galdu duen herritarren bat bizi bada ere. Ziurtasunez identifikatu dugun Zenozko azken hiztuna 2012an hil zen; ez dakigu herritik kanpo baten bat biziko den.

Ibarraren sortaldera edo hegoaldera begira dauden beste herrietan badira euskalkian mintzatzeko gauza diren ultzamarrak, baina oso-oso gutxi eta adin handikoak ia denak: 85 urtetik gorako bina Larraintzarren zein Gorrontz-Olanon, eta 80 urteko edo zaharragoko bakar bana²⁹ Eltson, Arraitzen eta Gerendiainen. Gune horietan guztietan erabat itzaltzeaz dago euskalkia. Urritzolan, aurrekoen adintsuko hiztun batez gain, badago etxekoa neurri batean bederen semei transmititu dien 60 urteko beste bat ere.

Gainerako herrietan sakonagoa da Ultzamako hizkeraren arrastoa, baina etenik gabe ari da apaltzen. Egoera ez da homogenea. Suarben eredu dialektala garbi eman dezaketen zenbait adineko bizi dira, 75-80 urtetik goitikoak; ezin izan dugu gazteagorik identifikatu. Iraizozko eta Ilarregiko etxe banatan bederen bada euskalkia garbi jaso duen 30 eta 40 urte arteko herritarrik³⁰, baina salbuespena dira eta hortik landakoak 70 urtetik gora dabilta herri batean zein bestean. Eltzaburuko hizkeran ongi aritzeko gauza diren lagun gehienek ere 70 urteak beteta dituzte. 60tik goitiko hiztun gazteagoren bat bada, baina hirurogeitaka urteko eltzaburuar asko zeharo giro erdaldunean murgildu ziren Larraintzarren eskolatzearekin batera³¹, eta ibarreko euskara atzendu zaie edo nahasita berreskuratu dute urteek aurrera egin ahala. Alkotzen 60 urtez gorako gehienek eutsi diote bertako mintzoari, gurasoetako bat kanpotarra izan ezean; gazteago batzuek ulertu bederen ulertzen dute. Auzan da beste inon baino ageriagoa Ultzamako euskararen oihartzuna. Duela 80 urte inguru sortu ziren herritarrek menderatzen dute, emaztekiek erdarara sarriago jotzeko ohitura badute ere; etxearen araberrakoa izan zen handik harat gizaldiz gizaldiko transmisioa eta beste herrietan baino 50 urtetik beherako hiztun gehiago identifikatu ditugu. 35 eta 50 urte bitarteko hamar bat heldu euskalkidun behintzat badira³², eta adin horretatik behera –batuarekin nahasita izan dezakeen gazteren bat alde batera utzita– etxe batean gutxienez haurrek haraneko mintzoa beretu dutela ematen du.

Laburbiltze aldera, salbuespenak salbuespen alferrik da Ultzamako herri gehienetan eredu dialektala biribil berenganatu duten 50 urtez azpiko hiztunak bilatzea, eta lanak izan

29 Ultzamako euskara beste hizkerekin nahasia duen hiztun bat edo beste ere badelarik.

30 Etxean ibarreko euskaratik zein Basaburukotik edan duen ilarregiar gazteagoren bat badago, baina nagusiki Ultzamatik landakoa harturik.

31 Eskola ez da XX. mendean zeharreko erdalduntzearen eragile bakarra izan, ez eta kasu guztietan herri bat erdarara lerratzeko aski arrazoi ere –gogora Larraungo Uitzu (Erize, 1997, 328-329. or.) edota Baztango Lekaroz (Kasares, 2014, 179-180. or.)– baina pisu nabarmenagoa izan zuen karrikan euskara ahultzen hasia zen inguruneetan (Kasares, 2014, 190. or., Irurita dela eta). Larraintzarko eskola giroak aldiriko herrietatik joandako haurrengan duela zenbait hamarkada izan zuen eragin erdalzalearen oihartzuna Ultzaman, Basaburuan zein Atezko Beuntzan jaso dugu.

32 Gogora ekarri beharra dago berriro ere zenbait hiztunek oso lantzean behin edo neketan baino ez dutela erabiltzen euskara, eta zaila izaten dela auzoendako ere horrelakoak euskaldun ziurtzat jotzea.

ditugu ia non-nahi 50 eta 70 urte bitartekoak topatzen. Auzan apur bat bizixeago iraun du mintzo tradizionalak, baina ez inola ere haren etorkizuna bermatzeko bezain sasoiko.

Atezko hizkera Ultzamakoa baino are apalduagoa dago. Beuntzakoak dira azken lekukoetako asko, urtetik urtera gero eta gutxiago, 2013tik 2018ra bitartean bost gutxienez desagertuta. Euskalkiak herriko bi etxetan bakarrik izan zuen jarraipena gerraostean eta karrika duela hainbat hamarkada da erdalduna. 2018ko udazkenean bederatzi hiztun beuntzatar³³ identifikatu genituen, herriko hamabost etxeetarik seitan jaioak; haietako hiru Iruñean bizi dira eta izan liteke horrelako besterik. 75 urtetik gorakoak dira ia denak, salbuespenak 60 urteko gizon bat eta nagusiki eredu dialektala hartu duen 50eko beste bat direlarik³⁴. Azken bi horien adinkide batzuek herriko euskara ulertzen dute; baten batek kostata edo beste hizkera batekin nahasita eman dezake. Baina 80 urteak betetako erdaldun hutsak ere badaude, transmisioa etxe batzuetan aspaldi eten izanaren seinale.

Gainerako herrietan ia guztiz ahantzita dago Atezko mintzoa. Beratsaingo lau hiztun aipa ditzakegu. Bi gazteenek hirurogeitaka urte dituzte, eta eskolaratu orduko erdal giroan murgildu arren ez dute etxean jasotakoa galdu; beste biak 80 urte ingurukoak dira. Zigandan Beratsainen baino lehenago eten zatekeen transmisioa, herrian bizi ez den 85 urtetik goitiko hiztun bat baino ez baitugu ezagutzen. Aroztegin ibarreko euskaratik eta Malerrekakotik edan duten 60-70 urteko lagun gutxi batzuk bizi dira. Eguaresen sorturik euskara etxean ikasi zuen 90 urtez gorako pertsona bakar bat dago, baina umeumetatik Ultzaman zein Basaburuan ibilitakoa. Mendea beteta bizi zen 2020an Hiriberrri etxaldean euskaldun hazitako andere bat. Egillorren, aldiz, gizaldi honetan desagertu dira hondar nafarrera hiztunak –Ultzamatik bertaratuak–; are lehenago Eritzegoitin.

Atezko Beratsainen, Zigandan eta Aroztegin topatu daitezke, Iruñe inguruko ibarretan barrena hegoalderantz goazela, belaunez belaun transmititutako mintzo tradizionalen azken arrastoak. Odietan guztiz itzali berri da euskalkiaren ahotsa: herri gehiengotan izan zuen jarraipena XX. mendearen lehen laurdenean, eta ongi heldu zioten zenbait lekuko baliotsu urte hauetan joan zaizkigu. Kate horren hondarreko katebegia Martin Elizondo Aragon latasarra izan da (1922-2020)³⁵, eta 80 urtetik gorako muga hiztun³⁶ gutxi-gutxi batzuk bizi dira Latasan bertan, Erripan eta Anotzibarren behinik behin.

33 Herriak 57 biztanle ditu guztira (2019).

34 Esanguratsua iruditzen zaigu hiztun horren etxean transmisioak azken mendean eginiko bidea: ama gerra denboran sortu zen Beuntzan, ordurako euskara gibelka hasia zenean. Gurasoek (herrikoa ama, imoztarra aita) euskara zerabilten elkarren artean baina alabari erdaraz mintzatzen zitzaizkion. Honek, haatik, euskara bereganatu eta hiru seme-alabei transmititu zien 1970eko hamarkadan, etxekoa ikasi zutelarik gaztelania baino lehenago; haurtzaroan inguru erdaldunduaren presioak eta lotsak hirurak euskaratik aldendu, eta hizkuntza ibilbide ezberdina egin zuten handik aitzina: semea gaztetan euskarara itzuli zen eta hein handi batean berreskuratu du ibarrekoa, alaba zaharrenak herrikoa primeran ulertzen du baina ez da ongi mintzatzeko gauza, eta gazteena eredu estandarraren gurgilean berreuskaldundu da.

35 Aurretik zendu ziren Gelbentzuko Mariano Ziganda Ostiz (1910-2010) eta Pedro Oiartzun Orkin (1924-2016).

36 Hizkuntza batean aise aritzeko gaitasun osorik ez izan arren gertu samar gelditu den hiztunari esango diogu *muga hiztun*; aurreko belaunaldiaren ama hizkuntza neurri batean baino jaso ez duenari, alegia. Galeseraz aritzean Dorianek (1981, 107. or.) erabili zuen *semi-speaker* kategoriaren parekotzat dugu.

Gulibar, Txulapain eta Ezkabarten ere izan zuen segidarik tokian tokikoak joan den mendearen hasieran; Odietan baino apalago ordea, eta leku jakinetan bakarrik. Sarasaten lehenago eten zen euskararen jarraipena Gulibarko gainerako herrietan baino³⁷; Ezkabarten, Odietara begira dagoen Anotz herrixkako *Motxal* eta *Berokia* etxeak izan ziren beharbada euskalkia belaunik belau transmititzen hondarrekoak³⁸.

Iruñe inguruko beste mintzoen gizaldiz gizaldiko jarraipena guztiz etenda zegoen ziurrenik 1900erako. Nolanahi ere, XIX. mendeak oso aitzina egin arte eutsi zioten gutxi-asko euskara transmititzeari Olaibarren, Ezkabarte erdialdean, Itza zendearen sartaldean, Ollaranen eta Goñerriko Goñin bederen³⁹. Hiriburu ondo-ondoko herrietan gaitzago da azken lekukoaren arrastoari heldzea, transmisioa lehentxeago agortu baitzen, baina XIX. mendearen bigarren erdian euskalkiak izan zuen segida han-hemenka eta oihartzuna ez zen gerrate zibil osterara arte guztiz itzali⁴⁰.

4. LARRAUN-LEITZALDEA⁴¹

Eskualde honetako Basaburua⁴², Imotz, Lekunberri eta Larraun izango ditugu aztergai. Lekunberri nabarmen hazi da azken hamarkadetan –duela hogeita hamar urte

- 37 Oroitzapena Emilio Lintzoain zenak jaso zuen; hari zor diogu datua. 1904ko *Guía Eclesiástica*n (Izengabea, 1904) «¿Se habla vasco?» galderari ezetz erantzun zion Larraungo artzapez barrutiko parroko bakarra Sarasatekoa izan zen.
- 38 Txulapaingo mintzoaren azken lekukoetarik izan ziren Bernardina Gindano Latasa (Untzu, 1893-1991) eta batez ere Esteban Garbisu Aranguren (Beorburu, 1911-1992). Gulibarko euskaldunak izan ziren, aldiz, Ziako Hipólito Goñi Erro (1901-1994) eta Oraien auzuneko Gregoria Baraibar Erbiti (1912-1999). Ezkabarteko hizkera belaunez belau jasotzen hondarrekoa Andrés Zenoz Arze anoztarra izan zen (1914-1976), eta azken hiztuna Andresen arreba Celedonia (1908-1993; ik. Artola, 1985).
- 39 Artolak (2019) elkarrizketatutako Jose Mari Makirriain Alzuza olaibartarra (Olaitz, 1888-1986) euskaraz tirriki-tarraka moldatzeko gauza zen. Ezagutu zituztenek jakinarazi digutenez ongi mintzatu ziren honako gizon-emakume hauek: Ezkabarteko Manuel Arraiza Larrosa (Eutsa, 1869-1944) eta Atanasia Atondo Munuce (Sorauren, 1873-1963); Itza zendeako Hilario Munarriz Ansoain (Atondo, 1860-1949), Catalina Oiza Garbizu (Otxobi, 1869-c.1945), Hermenegildo Ripa Muguiro (Lete, 1882-1952) zein Isidro Aniz Argiñerena (Otxobi, 1892-1960); Ollarango Juana Ibarrola Marchueta (Senosiain, 1879-1968), Pedro Ollacarizqueta Lizasoain (Iltzarbe, 1889-1973) edota Saturnino Armendariz Ochoa (Egillor, 1895-1963); baita Goñi herriko Auspicio Gulina Olo (1877-1946) eta Eugenio Zubillaga Razquin (1893-1972) ere.
- 40 Jimeno Juriok jakinarazi zuen (1986: 50) Zizur Nagusiko Faustino Erro Zabalzak (1865-1943) zendeako gurasoen euskara ikasi zuela. Euskal hiztuntzat ditugu halaber, bildu ditugun lekukotzetan oinarrituz, Aranguren ibarreko María Arraras Aranguren (Labio, 1860-1937), Antsoain zendea zaharreko Marcelino Iribertegi Ilarregi (Aitzoain, 1870-1939) eta Fermín Garcirriain Zubillaga (Ballariain, 1867-1942), Eguesibarko Agustín Equiza Echandi (Elia, 1846-1937) eta Guillermo Lecumberri Huici (Olatz, 1866-1943) edota José San Martín Sarasa galartarra (Espartza, 1840-1919).
- 41 Araitz, Arano, Areso, Betelu, Goizueta, Leitza, Larraun, Lekunberri, Basaburua eta Imotz biltzen ditu. Hauek izan dira gure berriemaileak: Izaskun Aldaia, Pello Aldaz, Juan Aleman, Pedro Alsua (1927-2020), Joxe Antonio Arangoa, Bautista Auza, Bernar Azpiroz, Joxean Azpiroz, Ainhoa Beraza, Garbiñe Bernal, Loren Etxarri, Santi Etxeberria, Cristobal Etxekonea, Joxemiel eta Edurne Etxetxikia, Eusebio Ezkurra, Josetxo Goldarazena, María Magdalena Huarte, Francisco Iriarte (1935-2018), Joxe Antonio Iriarte, Joxe Anjel Iturralde, Lorea Lasarte, Arantxa Mariezkurrena, Mari Karmen Mariezkurrena, María Josefa Noain, Josu Oreja, Inazio Sala, Joxepita Sasturain, Camino Telletxea, Agustín Telletxea, Mikel Uharte, Joxemari Urritza eta Abeli Zabaleta. Aguxtin Mendizabalek ezinbesteko laguntza eskaini digu.
- 42 Lan honetara ekarri ditugun ibarretatik Basaburua da hizkera dialektalen hego mugan ez dagoen bakarra; euskalkia hainbat herritan oso ahul dagoela ikusita ezinbestekoa iruditu zaigu gure ikerketatik at ez uztea.

halako bi da gaur–, baina gainerako hiru udalerrien populazioa % 58 jaitsi da 1950etik 2019ra. Basaburua zein Imozko herri guztietan topatu daitezke euskalki hiztunak eta tokian tokiko hizkerak Ultzaman eta batez ere Atetzen baino errotuago daude. Dena den, bada alderik herri batzuetatik besteetara eta gazte gehienendako gero eta urrunagoa den eredu dialektala⁴³ gibelka doa non-nahi.

Joan den mendearen hasieran guztiz ibar euskalduna zen Basaburua baina handik lasterrera etorri ziren lehen transmisio hutsuneak. Jauntsarats eta Ihabenen gerra aitzinean hasi zen pitzatzen euskalkiaren jarraipena; 1970erako arrotz zitzaizen gazteei gurasoen euskara bi herri horietan, inguruko beste batzuetan erdara hedatzen ari zen, eta ibarraren iparraldea, artean, ezin euskaldunagoa zen (Sánchez-Carrión, 1972, 142-154. or.).

Euskarazko irakaskuntzak aldaketa sakona eragin du azken hamarkadetan. Euskalkiaren segida aspaldi etenda zegoen herrietan hizkuntza biziberritu du⁴⁴, eta herri horietako gazte zein haur euskaradunek, batzuetan, Basaburuko mintzoaren zerbait doinu edo kolore gehitu ahal izan diote eredu estandarriari. Beste alde batetik, ordea, tokian tokikoari sendoen eutsi dioten herrietan eten egin da ia non-nahi transmisioa, eta gaztetxoek baturantz egin dute. Basaburu iparraldeko herrietan ibarreko hizkera da oraindik nagusi, baina hiztun gazteak gero eta gutxiago dira eta haurrengana ia ez da heldu; herri horietan oso kontuan hartzekoak dira batuaren eta eredu dialektalaren arteko elkarrekintza eta kanpotik heldutako biztanle euskaldun zein erdaldunen eragina.

Arraratsen nahiko sasoiko iraun du gaur arte Basaburuko mintzairak. Garbi eman dezaketen bi haur behintzat badira; ibarreko bakarrak, ausaz. Gainerako gaztetxoek euskarak badu euskalkiaren kolorerik baina ez da zaharragoen Arrarasko mintzo garbia. Kanpotarrak badauden arren, lautik hiru izango da herrian euskaldun. Igoan eta Berueten ere badu bizitasuna tokian tokikoak baina ez Arraratsen bezainbestekoa. Igoan apur bat luzeago iraun du herriko hizkeraren transmisioak Berueten baino: sendi batzuetan 30 urte inguruko igoarrek eutsi diote eta garbi samar eman dezaketen 18-20 urteko bizpahiru gazte ere badaude; beste batzuk, ordea, herriko gurasoak izanik, eredu estandar hutsean mintzo dira. Haurrek adinekoen euskara ulertu bai oro har, baina ez dute hartu. Berueten nabariagoa da eredu dialektalaren etena: 30 bat urtekoek ongi jaso dute baina gehienek ez dute karrikan erabiltzen eta gaztelaniaz aritzen dira adin-kideekin, herriko hizkerara jo ohi duen baten bat mintzakide ez bada. Aipatu adinetik

43 2008an 18-30 urte bitarteko zenbait gazte imoztar eta basaburuarren egoera aztertu zuen Apalauzak: «Denetatik dagoela esan dugu [...] herrikoa menderatzen dutenak, gehien-gehienean estandarra baliatzen dutenak, etxean ere gaztelaniaz aritzen direnak, eta abar. Oro har, euskarak gehien iraun duen herrietan dago gazteen euskara osasuntsuen, eta oraindik ere beren herriko euskararen ezaugarriak gordetzen dituzte gazte batzuek; alabaina, etxetik edo herritik kanpo hizkera hibridoa erabiltzea da joera nagusia» (2012, 119-122. or.).

44 Ez Basaburuan bakarrik. Ultzamalde osoan hiru herrik dute ikastetxea: Iraizotzek (HH), Jauntsaratsek (HH, LH) eta Larraintzarrek (HH, LH, DBH). 2017/18 ikasturtean hiru herrietako eskoletara zihoazen 402 ikasleak D eredukoak ziren. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar Ultzamaldeko ikasle batzuk –Imozkoak bereziki, baina baita Basaburukoak ere– Irurtzunen eskolatuta daudela, eta badirela aipatu bi ibarretan A eredu hobesteagatik seme-alabak Irurtzun edo Iruñe aldera igortzen dituzten gurasoak.

beheiti ez dugu ibarrekoa txukun jaso duen inoren aditzerik. Gaztetxo eta haur guztiek euskara batua besterik ez dakite eta erdarara jo ohi dute, oroz gain jolasean ari direnean; adinekoek herriko mintzoan hitz egiten dietenean, lanak izaten dituzte tarteka zenbaitek esan dietena ongi ulertzen.

Aizarotzi dagokionez, herri zaharra –lau familia eskas– ibarreko euskara hobekien gorde duenetako bat da. Baina azken urteotan izugarri handitu da populazioa⁴⁵ eta bizilagun gehienak kanpotik heldutakoak dira⁴⁶. Tokian tokikoa jatorrizko herria bezain zokoratua gelditu dela esan daiteke.

Euskalkiaren bizitasunaz denaz bezainbatean aurreko herriak baino erdaldunagoa da Itsaso; aldiz, Gartzaron eta Erbiti baino euskaldunagoa. Laurogeitaka urteko itsasoarrek zeharo giro euskaraduna ezagutu zuten eta umetan hagitz erdara gutxi ikasiak dira, baina handik aurrera azkar aldatu zen egoera. 60 urte inguruko ardean herrikoa ongi jaso duenik topatu daiteke, baina hor dago muga; 40tik 60rako bidean dabilzan lagun gutxi-gutxi batzuek etxekoa eta batua nahasian ematen dituzte. Gartzaronen handiagoa da tokian tokikoaren arrastoa Erbitin eta Orokietan baino. Duela 70 urte oso euskalduntzat zuten Gartzaron herri erdaldunagoetan⁴⁷ baina ordu hartan gertatu zen transmisio eten nagusia, adin horretatik goiti ohikoena euskalkia menderatzea izanik gutxi batzuek bakarrik beretu baitzuten handik aitzina; duela hirurogei bat urte emakumezkoek gaztelaniara jotzen zuten ardura, gazte zein heldu. Orokietan edo Erbitin bezalatsu, gaur ez dago Gartzaronen bertako mintzoa gorde duen gazterik. Erbiti lehentxeago erdaldundu zen Gartzaron baino. Ibarrean zehar gertatu bezala emakumezkoak izan ziren berrizale: egun 70 bat urte dituztenek erdara hobetsi zuten gaztetan, eta ordurako den-denak ez ziren euskal hiztunak. Gizonezkoek gehixeago eutsi zioten mintzaira zaharrari baina duela mende erdi ez zen euskara handirik Erbitiko karrikan. 70 urteak betetzear dauden erbitiarrak transmisio etenaren mugan hazi zirenez adin horretatik gorakoak dira euskalkia ongi beretu ahal izan zutenak. Orokietarrez ibarrean zehar galdetzean, bestalde, euskaraz jakinda ere erdararako jaidura aspaldikoa dutela eta inguruko basaburuarrak baino erdalzaleagoak izan direla jaso dugu. Orain mende bete jaiotakoak euskaraz mintzatzen ziren karrikan, baina duela 80-90 urtekoek erdaraz egin ohi zuten gaztetan herri euskaldunagokoekin aritu ezean. Egun badira 80 urteko orokietar erdaldunak, eta 70etik beheitiko euskalkidunik ere bai, baina etxearen arabera eta ez askoz gazteagorik.

Imotzerako bidean elkarren bizilagun diren Udabe eta Beramendin ahul dago guztiz Basaburu hegoaldeko mintzoa, baina ez Ihaben eta Jauntsaratsen bezain apal. Gaurko egoera kontuan hartuz ematen du pittin bat luzeago iraun zuela transmisioak Beramendin, eta ondoko herrietan ere uste hori bera jaso dugu. 60 urte inguruko

45 2003an 10 biztanle izatetik gaur egun ia 200 izatera igaro da Aizarotz.

46 Horietako asko euskaldunak dira baina euskara batua edota nork bere sorterrikoa erabiltzen dute, bizitoki berriko mintzo zaharra arrotza zaie. Basaburura eta Imotzera kanpotar ugari joan direnez bi ibar horietan sarriago entzuten dira bertakoak ez diren hizketa ereduak (Apalauza, 2012, 116. or.).

47 Gartzarongo gazteak euskaraz aritzen ziren urte haietan Jauntsarasko dendan. Gure berriemaile jauntsarastarraren ahizpetako batek har zitzala nahi izaten zuten, huraxe baitzen euskaraz hobekien zekiena.

beramendiarren batek etxeko euskara oso bazterrean utzi ostean apur bat kostata berreskuratu du, edo ibar euskaldunagora ezkondata ongi gorde du; herrian etenik gabe euskalkiari heldu dioten hiztun apurrak 70 urtetik gorakoak dira. Udabeko mintzoaren jarraipena 1955 aldera hondatu zen. 65 urte ditu katearen muturrari doi-doia heldu ahal izan zion herritarrik gazteenak; ondoren sortuek ez zuten etxeko euskara ikasi eta gazte batzuk, herri askotan bezala, ibarreko hizkeraren doinutik zerbait hartu duen batuan mintzo dira.

Jauntsarats eta Ihabenen ia guztiz itzali da euskalkiaren arrastoa. Ihaben luzaroan izan da erdalgunea eta aspaldi eten zen han jarraipena –ez Jauntsaratsen baino lehenago, uste hori hedatu samar badago ere–. Sánchez-Carrionen ustez Ihaben bezalako herri ttipian maistra, basozaina eta albaitaria familia eta guzti bizitzeak izan zuen eraginik euskararen higatzean (1972, 154. or.). Gerra ondoan baratu zen euskalkiaren segida; 70 urtetik goiti dabilzan ihabendar gutxi-gutxi batzuk izan ziren jasotzen hondarrekoak. Jauntsaratsen are lehenago bihurtu omen zen ohiko gurasoek euskararik ez transmititzea. Txepetxek deskribatu egoeraren arabera (1972, 153. or.) alerik ere esperoko ez genukeen arren, Jauntsarasko mintzoaren bi lekuko identifikatu ditugu, 80 urte edo zaharragoak; bat bederen euskara txukun emateko gauza da, baina ez du erabiltzeko ohiturarik.

Imotz ibarrean Goldaratz eta Etxaleku dira euskalkia belaunik belaun hobekien gorde duten herriak baina bietan antzeman dugu etena. Goldarazko zortzi etxetarik seitan 30 urtez gorakoak aise mintzo dira euskalkian, ez ordea goldaraztar gazteagoak –lau baino ez– herriko gurasoak izanda ere. Etxalekura kanpotar erdaldu gehiago bertaratu dira Goldaratz baino; ibarreko euskarak hiru etxetarik bitan dirau bizirik, baina ez da ia gazteengan errotzen ari. Berrogei urtetik gorako etxalekuar guztiek ongi dakite euskalkia eta 30era bitarteko bakar batzuek ere bai; gazteagoen artean eredu estandarra da nagusi, herrikoa ongi ulertzen dutela ematen duen arren. Imozko mintzoa ongi samar hartu duen 20 urteko gazteren bat bada, eta batuarekin nahasirik darabilten nerabe gutxi-gutxi batzuk. Haurren euskara eskolakoa da –ukitu ttikiren bat gorabehera hemen ere– eta esan daiteke euskalkia ez dela haiengana heldu.

Muskitzen aurreko bi herrietan baino ahulduago dago ibarreko hizkera; ez ondorengoetan bezainbeste. 1950eko hamarkadan zehar, Manuel Rekalde eta Emilio Lintzoain apaizen ahaleginari esker, haurrek euskarari luzeago eutsi eta etena inguruko herri gehienetan baino beranduago gertatu zen⁴⁸. Gaur egun Muskizko mintzairari eutsi dion 50 urtetik goitiko hiztun multzo handixkoa dago –gazteagorik ez– baina herrira hango eta hemengo zenbait euskaldun ezkondu dira eta horrek hizkera aniztasun handiagoa eragin du. Muskizko gazte bakanek batu aldera jotzen dute, beste hizkera horien eta bertakoaren printzak ere tartekatuz.

48 Eskualdeko beste herri batzuetan ez zen horrelakorik gertatu. Auzan, Alkotzen edo Lantzen, esaterako, euskarari ateak itxi zizkioten apezak ezagutu zituzten XX. mendearen erdialdean.

Zarrantz, orain mende erdi, aurreko hiru herriak bezain euskaraduna zen (Sánchez-Carrión, 1972, 155. or.)⁴⁹. Bizi da oraino Zarrantzko mintzoa, baina gaur herriko biztanle gehienak kanpoan sortuak dira eta zarrantztar euskalkidunak sakabanatuta daude⁵⁰. 60 urtetik gorako hamar bat hiztunen arrastoa topatu dugu Ollaranen, Iruñe aldean eta Imotzen bertan barrena. Baten batek ez zuen seme-alabarik izan eta Iruñerri alde egindako gehienek ez diete ondorengoei euskaraz egin⁵¹. Bi senditan gauzatu zen jarraipena, eta horren ondorioz 40-50 urteko bizpahiru lagunek Zarrantzko euskara ere jaso zuten etxean, batuaren edo hurbileko hizkeren zipriztin ugarirekin.

Zarrantzen bezalatsu Oskotzen ere 60 urtetik gorakoek eutsi diote eredu dialektalari. Sei etxetako dozena bat hiztun identifikatu ditugu; batzuk herrian bertan bizi dira. Asko zabaldu da gaztelania familia gehienetan eta zaila da 60 urte inguruko zenbait oskozta elebidunak diren jakitea, auzoek ere ez baitiete sekula euskararik entzun. Gazteagoek, euskara ikastekotan, batua jaso dute.

Erasoko mintzo tradizionala oso makalduta dago. Duela gutxi arte etxe guztietako adinekoen ahotan zirauen baina batzuk desagertu eta beste batzuk herritik joan dira; alde egin duten sendiek ez dute eskuarki euskararik transmititu. Herrian bertan Imozko mintzaira jaso zuen 70 urteko hiztun bat eta muga hiztuntzat jo daitekeen beste bat ezagutzen ditugu. Zalantza dugu oraingoan ere, besterik ez ote den izango; Latasan bederen 90 urteko euskal hiztun erasoar bat bizi da. Ez dira gutxi Erasora kanpotik heldutako biztanleak, eta gaztelania indartsu zabaldu da etxe gehienetan.

Urritzan Imozko hizkeraren kondarrak gelditzen dira, azken aldi honetan zenbait lekuko hil ostean. 80 urteak bete dituen herritar bat aise moldatzen da euskaraz; 75eko beste bat azken orduko hiztuna izan zen eta etxekoa kanpoko hizkeretako ekarpen eta guzti osatu du. Izan liteke adintsuko beste euskalki hiztunik, baina oraingoan ere euskara jendaurrean erabili faltan ezin izan dugu ziurtatu. Lan nekeza da, azkenik, Latasako hizketaren arrastoari heltzea; ibarrean zehar baino are lehenago bakandu ziren han hiztunak, herria aspaldi erdalduntzen hasita⁵². 75 urteko bat bederen bada kanpoan, eta egun sorterrian bizi den 40 urteko latasar batek Imozko eta Larraungo gurasoen mintzoak hartu zituen.

Ikus daitekeenez herri hizkerak oso azkar ari dira lausotzen Imotzen zein Basaburuan, desagertzear daude zenbait herritan, eta salbuespenak salbuespen bi ibarrotako gazteek eredu estandarra edo estandarretik oso gertukoa jaso dute (Apalauza, 2012, 551-552. or.).

49 Imotzen aldakan den Gulibar ibarreko hizkera itzali ahala zarrantzarrak euskaltasunaren eredu bihurtu ziren Ziako auzoentzat. 1970 aldera, Zarrantzko familia bat Ziara aldatu, guztiz deigarriak izan ziren neska-mutil gulibartarrendako eskolakide berrien doinuera eta erdaraz mintzatzeko modua.

50 Ohart bedi Imozko gunerik ttipiena dela Zarrantz; 15 biztanle baino ez ditu (2019). Joan den mendean zehar herritar ugarik egin zuten alde inguruko ibarretara eta Iruñerri.

51 Inguruko herrietatik Iruñe aldera joan ziren familia euskaradun askoren jokabidea izan zen hori.

52 Erdalduntzearen zergatiaz, ik. Sánchez-Carrión (1972, 156. or.).

Tokian tokiko mintzo nafarren lurraldea etengabe higatzeak lurralde horren bazterrean utzi du Larraun ibarra ere. 1995era arte hiriburu izandako Lekunberri udalerrri beregaina da gaur⁵³ baina ezinbestean aipatu beharrekoa da, ibar erdigunean egoteaz gain larraundarren zerbitzu eta azpiegitura asko biltzen dituelako eta aspaldi hasi zelako erdalduntzen⁵⁴. 1970erako 30 urtetik gorakoak ziren euskara hiztun lekunberriar gehienak, transmisioa ia guztiz etenda zegoelarik (Sánchez-Carrión, 1972, 64-66. or.). Bizi dira hiztun haietako zenbait, gehienak aspaldian euskaraz solastu gabeak, eta batzuk bilobei esker hurbildu dira haur-haurrean jasotako hizkuntzara⁵⁵ baina beste batzuek gaztelaniaz erantzuten dute euskaraz egiten dietenean ere. Herriko heldu ugari, gurasoetako bat edo biak euskal hiztunak izan arren, erdara hutsa jaso zuten etxean eta ez zuten euskalkia barneratu ahal izan; sarritan euskararekiko jarrera pasiboa dute gaur eta bikotearen jokabideak baldintzatu ohi du haiena. Gainbehera joan da beraz Lekunberriko mintzoa, eta azken hamarkadetan euskarazko irakaskuntza nagusitu bada ere mende hasierako inkesta batek agerian utzi zuen ikastetxeko guraso euskaldun askok ez zutela hizkuntzarekiko estekamendu handiegirik, gaztelania ibili ohi zutela elkarren artean eta seme-alabek erdarara jotzeko ohitura zutela (Beraza, 2002)⁵⁶.

Nolanahi ere, bizkortu egin da euskara Lekunberri azken urte hauetan. Irakaskuntza ez ezik mesede izan da kanpotarren bultzada ere⁵⁷, azken 10-15 urteotan bikote gazte euskaldun asko bertaratu baitira, Leitza aldekoak batik bat. Horrek, alde batetik, euskara biziberritzea eta hizkuntzaren aldeko jarrerak gora egitea eragin du⁵⁸. Bestetik, hizkera berriak hedatu ditu karrikan: Lekunberri Leitza edo Gipuzkoa aldeko doinua da nagusi, ez Larraungoa. Dena den, ibarreko herrietako kideak dituzten adiskide taldeetan badu tokirik bertakoak⁵⁹.

53 764 biztanle zituen 1981ean eta 1536, aldiz, 2019an. Egun Larraun osatzen duten herriak 1313 bizilagun izatetik 951 izatera igaro dira epe berean. Desoreka demografikoa etenik gabe handitu da.

54 Alli herrixkan orain ehun urte euskara nagusi izanik, ondoko Lekunberri «alketua» zegoen hizkuntza (*Napartarra*, «Larraundik», 1916-9-23). Jose Agerre Santesteban «Gurbindo»k txalotu egin zuen 1932an EA]ko batzar bat Lekunberri eta euskaraz egin izana, «euzkera beitago erri ontan ein larrian» (Bidador, 2003, 54. or.). Urte hartan bertan «Lebitarra» ezizeneko berriemaile batek salatu zuen *La Voz de Navarra* herriko mutil gehienek euskaraz jakin bai baina ez zutela erabiltzen (Bidador, 2003, 194-195. or.). Irigariren esanetan (1956, 41. or.) gazte guztien joera zen hura 1935erako, ez mutilena bakarrik.

55 Toki anitzetan dokumentatutako jokabidea da hau. Irurita dela eta, ik. Kasares (2014, 215-216. or.).

56 2001ean askoz sarriago erabiltzen zuten euskara kalean hurrek eta adinekoek gazteek eta helduek baino. Azken horiek maizago jotzen zuten euskarara haurren aitzinean zeudenean elkarren artean erdaraz aritu arren, eta hurrek askoz gutxiago zerabilten euskara haien artean, heldurik ondoan ez zenean (SEI, 2002). Kasaresek agerian jarri du Iruritako kasua aztertuz zenbateraino dauden uztarturik hurrek elkarrekin gero eta sarriago gaztelaniaz mintzatzea eta gurasoek hurrei euskaraz baina batak besteari erdaraz egitea (2014, 216-218. or.).

57 Lekunberriko biztanleen % 80 beste herriren batean jaioa da.

58 Euskaldun eta erdaldun banak eratutako bikote ugarietan erdal hiztuna euskara ulertzera heltzen da, eta guraso euskaldunak euskara baliatzen du seme-alabekin, ia beti batua edo beste eskualderen batekoa. 2002ko inkestak agerian jarri bezala egun ere ohikoa da ibarrekoak diren guraso bikote euskaldunek seme-alabei euskaraz eta elkarren artean gaztelaniaz egitea; Lekunberri eta ondo-ondoko herrietan gertatzen da batik bat hori.

59 Adiskide taldeetan alde handi samarra dago; batzuk euskaldunagoak eta besteak erdaldunagoak dira. Taldeak sortzean izaten du eraginik gazteek etxetik dakarten hizkuntza ohiturak.

Lekunberriko haur eta gaztetxoak euskaradunak dira gaur. DBH2ra bitartekoak Larraungo neska-mutiko gehienekin batera eskolaratzen dituzte herrian bertan (350 ikasletik gora), guztiak D ereduan, eta urte luzez ikasketak Iruñean jarraitzea egokitu izan zaien arren guraso askok Leitzara igorri dituzte seme-alabak, eta erreferentzia zentroa Leitzakoa izan dadila eskatu. Lekunberriko eskolan ahalegin handia egin da eredu dialektala lantzeko; sarritan joaten dira larraundar euskalkidunak geletara hainbat ekintzaren kariatara, edota neska-mutikoak herriren batera bisitan. Lan zaila da ordea, irakasle gehienak Larraundik kanpokoak izan ohi direlako eta arrotz dute-lako ibarreko mintzoa⁶⁰. Ikasgelen artean ere alde handia dago, batzuek gaztelaniara jotzen dutelarik eta beste batzuek euskarara. Eskolaz kanpoko ekintza ugari Araitz, Leitz, Basaburua eta Lekunberri-Larraungo haurrendako antolatzen direnez, Lekunberrikoak haiek baino euskaraz bizitzera ohituago dauden zenbait neska-mutilekin ibili ahal izaten dira. Eskola giroan bezala herriko haur eta nerabe taldeetan ere denetarik dago, euskaraz aritzen direnak zein gaztelania hutsean bizi direnak, etxeetan zer nagusitu den. Nolanahi ere, hurbilago sentitzen dute euskara egungo gaztetxo lekunberriarrek, eta ingurukoekin (leitzarrek batik bat) euskarazko harreman handiagoa dute⁶¹.

Lekunberri beregaina denetik hamabost kontzejuk osatzen dute Larraun. Errazkinen bakarrik iritsi da haurregana mintzo tradizionala belaunez belaun, beste herrietan nekeza delarik eredu estandarraz gain ibarreko hizkera ere txukun jaso duten gazteak topatzea. Araitz eta Tolosaldearekin loturarik handiena duen Larraungo gunea da Errazkin (Apalauza, 2012, 47, 56. or.) eta horren ondorioz herriko hizkera Araitz aldekoa hurbilduz joan da (Apalauza, 2012, 479, 548. or.); Gipuzkoako euskaratik asko duen eredu estandarra errazkindarrek gainerako larraundarrek baino hurbilago sentitzeak izan lezake zerikusirik tokian tokikoak ondoko herrietan baino segida sendoagoa izatearekin. 35 eta 55 urte bitarteko herritarrek erdarara sarriago jo arren adineko eta heldu guztiek eutsi diote euskalkiari; gazte eta are haurrengan ere ez da katea eten, eta eredu batua hedatzeak ez du gaur arte dialektala baztertzea eragin. Helduek eta bereziki gazteek gutxiago egiten dute hika adinekoek baino, eta behinolako bizimoduari dagokion lexikoan edo toponimiaren ezagutzan handia izan da galera, baina euskalkiaren jarraipena, gaur-gaurkoz, ez da eten. Azpirotzen eta Gorritin, aldiz, ibarreko mintzoa beretu duten heldu gazteak badauden arren tokian tokikoaren transmisioa guztiz agortuta dagoela ematen du. Haurrik ia ez duen Azpirotzen 30 urtekoek eredu estandarrekin nahasita jaso dute herrikoa; zaharragoak batua zein euskalkia erabiltzeko gauza dira, eta adinekoek ibarreko euskara besterik

60 2017-18 ikasturtean hiru irakasle ibarrekoak ziren, besteren bat eskualdekoa eta gainerako gehienak, hogeitau inguru, Gipuzkoa eta Iruñe aldekoak. Jatorri aniztasuna eta maisu-maistren mugikortasuna ohikoak dira ia non-nahi. Merezi du aipatzea mugikortasun hori are nabarmenagoa dela ikerketa honetatik kanpo utzi ditugun Araitz eta Betelun: pare bat irakasle izan ezik den-denak aldatzen dira eskolaz ikasturte batetik bestera eta leitzar bat salbu denak ziren urrutigokoak 2018an. Euskalkia hobeto gorde dute gaur arte Araitz-Beteluko gazteek Larraungoek baino eta horri eustea da kezka nagusia, Betelu, Arribe eta Atallu erdaldunagoetan batez ere. Baztango irakasleen mugikortasuna dela eta, ik. Kasares (2014, 170. or.).

61 Kasaresek 2010ean adierazi zuenez (112) «Lekunberriin [...] gizarte bizitzaren arlo aniztetasun gazteek beren adinkideekin erdaraz egiteko joera izaten dute». Azken hamarkadan egoerak apur bat hobera egin du.

ez dakite⁶². Gorritin gazte gehixeago daude baina egoera oso antzekoa da: 30 urtez azpikoak batuan besterik ez dira mintzo, gaztelaniaren eragina haiengan gero eta handiagoa delarik, eta adin horretatik goitikoek eutsi zioten belaunik belaun etxe-koari. Umetan jaioterrian bertan eskolatu ziren guztiek gorde dute herriko hizkera, baina hasieratik Lekunberrira jo zutenetarik gutxik. 40-50 urte inguruko gorritiar-rrak eredu estandarrean zein euskalkian aritzeko gai dira eta hika ere ez dute oro har galdu. Kanpotar erdaldun gutxi batzuk daude, eta Larraungo beste herrigune batzuetan bezala Gipuzkoatik iritsitako euskaldun zenbait ere bai.

Ibarreko gainerako herrietan are higuatua dago euskalkia. Helduak edota adinekoak dira eutsi dioten gehienak, non eta ez bakarrak, baina alde handixkoa dago leku batzuetatik besteetara. Etxarrin duela 40 urte eten zen transmisioa. Ordura arte, herriko guraso guztiek irakatsi zieten seme-alabei; egun 45-50 urte dituztenek batuarekin batera hartu zuten, Lekunberrin euskaraz eskolatu zirenez⁶³. Etxarriar zaharragoren batek ere bereganatu du eredu estandarra etxeoaz gain, baina 70 urtetik gorakoak euskalki hiztun hutsak dira. 38 urteko herritar batek doi-doia hartu du ibarreko euskara; ondoren hogeitaz urte luzez Etxarrin inor jaio ez zenez 16 urtez azpikoak dira gainerako hiztunak eta euskara batua ikasi dute, noiz edo behin herriko ezaugarriren batek aberastuta. Etxarriko helduek gurasoekin, herrikideekin edota ibarkideekin erabiltzen dute euskalkia; batzuek besteek baino sarriago. Albiasun ere Etxarrin bezalako transmisio eten bortitza eta erabatekoa gertatu bide zen, baina 50 urte ingurukoak izan ziren gurasoen euskara jasotzen hondarrekoak. Oso herri ttipia da Albiasu⁶⁴, ia gazterik gabea, eta daudenek euskara estandarra ikasi dute. Azken mendean zehar, bestalde, albiasuarren mintzoak Errazkingoaren aldera egin du, bi herrien arteko harremanak eraginda⁶⁵; lan hau osatzeke zegoela desagertu dira, 90 urteak beteta edo betetzear, bilakaera horren aurreko hizkera zaharra garbien eman zezaketen hondar hiztunak.

Aipatu azken lau herrietan Larraungo mintzoaren gizaldiz gizaldiko segidak erabateko eten bortitza izan zuela ematen du. Ondorengo beste zortzietan, aitzitik, tokian tokikoa adin jakin batetik goitiko hiztun guztiek jaso zuten baina gazteagoren batek ere badaki; herri horietan guztietan transmisioaren eten nagusia duela 50-65 urte gertatu zen⁶⁶.

62 Azpirozko kontzejuari dagokion Lezaeta herririka (15 biztanle) ia guztiz hustu zen eta azken urteotan kanpoko familia batzuek biziberritu dute. 60 urtetik goitiko lezaetarren aditza dugu bakarrik; asko Iruñe inguruan bizi dira eta denek eutsi diote etxeko euskarari. Herriko biztanle gehienak (haur guztiak barne) kanpotik heldutako sendi horietan jaio dira. Lezaetako neska-mutilak Errazkingoekin eta Araitz-Betelukoekin batera eskolaratzen dituzte.

63 Hirurogei urtetik goitiko etxarriarrek herrian bertan zuten eskola eta gazteagoek Lekunberrira jo zuten, 1973 ostean sortuak euskaraz eskolatu zirelarik. Beste herri askotan oso antzeko egoerak bizi izan zituzten.

64 16 biztanle ditu erroldaturik (2019); Madotzekin batera Larraungo herririk ttipiena da.

65 Albiasuko mintzoaren bilakaeraz denaz bezainbatean eta herriko hiztunak dituzten zenbait pertzepzio dirala eta, ik. Apalauza (2012, 195, 475, 547. or.).

66 Aipatzera goazen herri horietako batzuetan haurrak euskaldunak ziren Sánchez-Carrionek ikerketa egin zuenean, baina beste zenbaitetan (Uitzin, Iribasen, Aldatzen, Arruitzen) erdalduntzen hasiak ziren ordirako.

Baraibar talde horretan egokitu beharra dago. 50 urtetik gorakoek ongi jaso zuten euskalkia eta erabili ere egiten dute; 30 eta 50 urte bitarteko bi emakumek ere bai⁶⁷, baina ez omen da beste hiztunik. Nerabe gutxi batzuek neurri batean barneratu dute etxeko hizkera, baina nekez etorkizunean transmititu ahal izateko bezainbeste; gazte horiek eredu estandarra darabilte adinkideekin. Lekunberritik inguruko zenbait herri-tara hedatu den Gipuzkoa aldeko euskararen eragina handia da Baraibarren. Uitzin ere heldu batzuek eta adinekoek ongi eutsi diote euskalkiari, ez ordea gazteek. 1960ko hamarraldi amaieran, eskola giroak lagunduta, herriko neskatilak nabarmen lerratu ziren erdarara⁶⁸ eta familiaren bat gaztelaniaz hasi zitzaizen egiten seme-alabei. Neska haietako askok atzera heldu zioten euskarari 14-15 urterekin, baina arrakala sortzen hasia zen eta zabaldu egin zuten gertakariak pilatu ziren: bizimodu aldaketa, uitziar askok herritik alde egitea –neskek bereziki, kanpora ezkonduki–, arrotzak herriratu eta Uitziko bikote askotan beste mintzairaren bat sartzea, 1975 eta 1990 bitarteko jaiotza eskasia... Gertakari horiek ez diote hizkuntzaren ezagutzari eragin, baina eredu dialektalaren segidari bai: hizkera nahastea da nagusi 55 urte ingurutik beheitiko uitziarren mintzoan, ia ez dago euskalkia txukun bereganatu duen 45 eta 55 bitartekorik, eta gazteagoek adinekoen euskararen pizarrak bertzerik ez dituzte gorde. Gazte zein haur bakanen hitz egiteko eran askoz nabarmenagoa da eredu estandarren eta sartalderagoko mintzoez itzala; erdararena ere bai. Iribasko familia ugaritan, bestalde, gurasoetako bat baino ez da larraundarra –ez beti herrikoa, gainera– eta sendi horietan ere ez da oro har euskalkiari eusteko kontzientziarik izan. Ibarreko mintzoaren transmisioa guztiz etetea eragin du horrek; adinekoek euskalkia baizik ez dakite, eta gazteenetako askok euskara batua baino ez, Gipuzkoa aldeko kutsu eta guzti. 50 urteak betetako iribastar heldu batzuk bakarrik dira bietan egiteko gauza, eta 30 urtetik beheitiko gazte bat ere bai, baina ez du ematen besterik dagoenik.

Jarraian aipatuko ditugun herriak aurrekoen talde berekoak dira, baina transmisio eten nagusia lehenago gertatu zen, duela 60-70 urte. Haietarik da Oderitz. Bere ttipian, kontzeju hau euskararen ibilbideak eta transmisioaren haustura-estekadurek eragin duten hiztun profil aniztasunaren adibide da. Oderitzek 45 biztanle ditu; 36 euskaldunak dira eta hiru muga hiztun daude. 25 lagun dira jatorriz herrikoak –denak euskara ikasitakoak, eta ohi ez bezala asko eta asko haurrak–; etxeburuen erdia baino gehiago kanpoan jaioa da. Oderitzen sortu ziren 60 urtetik gorako guztiek (dozena erdi eskas) Larraungo euskara jaso zuten belaunez belaun, erabili egiten dute –hika ere bai, adinkideekin– eta eredu estandarra urrun samar dute. 30 urtetik 50era bitarteko bost biztanle oderiztarretatik hiruk egokieraren arabera euskara batua edo herrikoa balia

67 Hala ere gizonezkoak geratu dira batez ere Baraibarren; sendi askotan amak kanpokoak dira. Larraunen zein Sakanan berriemaile ugarik azpimarratu dute tokian tokiko mintzoa transmititzerakoan zenbaterainoko eragina duten amek; datu bilketan sarritan agertu zaizkigu emaztekiak hizkuntzaren iraupen-galerei loturik. Iruñean euskararen jarraipenerako amek duten garrantzia Kasaresek nabarmendu du (2014, 235. or.). Kanadan frantsesa transmititzeko ama frantses hiztunen eragina dela eta, ik. Iqbal (2005). Italia iparraldeko bergamera gero eta gehiago gizonezkoekin lotuta agertzea –eta ez emakumezkoekin– lonbardieraren baitako hizkera horren iraupena arriskuan jartzen ari da (Cavanaugh, 2006).

68 San Bizente Paulek sortu Karitatearen Alaben kongregazioko moja erdaldunak XIX. mendetik 1970eko hamarraldira arte bizi izan ziren Uitzin eta heziketa ardura hartu zuten, neskena batez ere. Mutikoak hamar urtetik batxilergoa hasi arte joan ohi ziren lekaimeengana; neskak luzeago ibiltzen ziren haiekin.

ditzakete; beste biek batua baizik ez dute menderatzen, bertako hizkeran mintzo den aita duten arren. 30 urtetik beheitiko hamabost biztanle dira Oderitzen jaioak. Bakar batek ez ditu bi gurasoak herrikoak. Denek dute aita edo ama euskalduna, baina bederatzik bakarrik guraso biak, eta haietako seiren aita-ametako bat euskaldun berria da. Bost hurrek dute Oderizko mintzoa gorde duen guraso bat, eta beste bik ondoko herriren batekoa dakiena. Hamabost haur eta gazte horietako sei gazteegiak dira nolako euskara hartuko duten jakiteko. Gainerakoetan zaharrenek (17-20 urte) nahiko txukun jaso dute ama aldaztarraren hizkera, sei urteko mutiko bat eredu estandarra eta ama oderiztarraren mintzoa nahasian ari da hartzen, eta besteek batua ikasi dute. Oderitzen gaur euskara ongi errotua dagoela bezain agerikoa da etorkizunean nekez bermatuko dela euskalkiaren gizaldiz gizaldiko jarraipena.

Aldatzen hogeit hamar familia bizi dira gaur, Lekunberrin bezala azken urteotan gipuzkoar ugari bertaraturik⁶⁹. Transmisioa duela 60 urte hasi zen pitzatzen: adin horretatik goiti dabiltzan Aldazko seme eta alaba guztiek dakite eta erabiltzen dute Larraungo euskara, baina gazteagoak erdarara ohitu ziren gurasoek etxean euskaraz eginagatik⁷⁰ eta horren ondorioak agerikoak dira egun: 40-60 urteko aldaztarrek adinkideekin gaztelaniaz solasteko joera dute, eta 30-60 urte bitarteko gutxik jaso zuten herriko hizkera eredu estandarrekin batera. Batua da gazteagoek menderatzen duten euskara bakarra; Aldazko etxe gutxi batzuetan seme-alabei ibarreko mintzoan egiten diete eta gaztetxo horiek ongi ulertzen dute, baina egunerokoan etengabe entzuten duten eran baino ez dira aritzen. Allin ere 60 urtez gorako guztiek heldu zioten herriko hizketari, baina ondorengoei ere utzi zizkien arrastoak, hiztuna gazteagoa eta apalagoak. 40 urtetik 60ra bidean dabilen alliarren batek ongi samar hartu zuen baina biribil emateko gaitasunik gabe, eta beste batzuek are gutxiago jaso zuten. Gure berriemailea adin tarte horretakoa da; umetan euskalkia ikasi arren eskola giroak eredu estandarrentz eraman eta herrikoa alabekin haserretzen denean baino ez du azaleratzen⁷¹. 40 urtez azpiko alliarrek arrotz gazteak dira eta neraberren batek soilik gorde du herriko mintzairaren kutsu ttikiren bat. Euskalkia galduz joan ez ezik belaunaldi gazteen euskara bera ere eskasten ari delako ustea jaso dugu Allin, beste zenbait herritan legez⁷².

Arruitzen transmisio etenik sakonena Aldatzen baino lehentxeago gorpuztu bide zen, euskalkia 65 urtetik gorakoan mintzoa baita. 1970ean Sánchez-Carrionek hain erdarara egokituta topatu zituen eskola umeak non euskarara itzuliko ez zirela ohartarazi

69 Aldazko ostatuaren ardura euskaraz mintzatu ohi diren gipuzkoar batzuek hartu dute; Baraibarren ere ibarretik kanpoko ostalari euskalduna dago baina erdaraz egiten du. Mugirokoa erdalduna zen 2018an. Herri txikietako (des)oreka linguistikoa eragin handikoak izan daitezke sozializazio guneen arduradunen jatorria eta arduradun horien euskararekiko jarrera.

70 Gure berriemailea 1960ko hamarraldi amaieran jaio zen eta horixe gertatu zitzaion. Herria bisitatu zuenean Sánchez-Carrionek egoera hura bera antzeman zuen (1972, 76. or.).

71 Amagandik herriko euskara jasotzetik alabekin eskuarki batuan egiterainoko prozesua oharkabean gertatu zitzaion berriemaileari. Haurrideen arteko hizkuntza harremana ere ez zen kontzienteki adostu, baina oso finkatuta dago eta pertsonaren arabera aldatzen da: arrebarekin eta bi anaia gazteenekin erdaraz egiten du eta beste bi anaiekin, aldiz, euskaraz. Sakanan ere horrelako kasuak topatu ditugu.

72 Gaztelaniara sarriago jo edo hura gehiago kontsumitu eta euskarazko egiturak pobretzearen arteko loturaz mintzo da Kasares (2014, 219, 222-223. or.) Baztani buruz ari dela.

baitzuen (1972, 76. or.); hark iragarri bezala gertatu zen. Haur haiek, etxean ibarreko hizkera entzun arren karrikan zein eskolan erdara hutsean ariturik, ia guztiz galdu zuten euskara. Heldutan egindako ahaleginari esker berreuskaldundu dira haietako batzuk eta gaur, 55-65 urte dituztela, Larraungo mintzotik zerbait gorde duen eredu estandarrean mintzo dira; ahalegin hura egin ez zutenak euskaldun pasiboak dira⁷³. 50 urtetik beheitiko arruiztar asko, zaharragoak erdaldundu zituen eskolak euskaldundu ditu. Bizpahiru etxetan, ordea, aita edo ama zein aitatxi-amatxiak herrikoak eta euskaldunak izanik ez zen transmisioa eten; etxe horietan 50 urtetik beherakoek ere eredu dialektalari eutsi zioten eta seme-alabekin erabiltzen dute. Arruizko euskarak etxe horietako gurasoengan iraun du, eta gazte eta haurrek ez dute osotoro jaso baina eskolan ikasitakoari etxean entzundakoaren zaporea gehitu ahal izan diote. Astitz da aipatzen ari garen taldeko azken herria; egun 30 biztanle ere ez ditu eta haietako zenbait ez dira herrian sortuak. 65-70 urtetik gorako astiztar guztiek menderatzen dute eredu dialektala baina etxe batean helduek ere bere egin zuten, estandarrarekin batera 55 urtetik beheitikoek eta hura gabe apur bat zaharragoek. Gainerako etxeetako helduek ez dute Astizko hizkera biribil jaso eta bada euskalkian kostata moldatzeaz gain beste euskararik ez dakienik. 45 urtetik beheitiko hiru biztanle baino ez daude herrian: adin txikikoak dira eta batua da ezagutzen duten euskara bakarra.

Amaierarako utzi ditugu Mugiro eta Madotz. Lehenbizikoan aurreko herrietan baino higatuagoa dago Larraungo euskara. Lekunberriren itzalean aspaldian erdaldundutako gunea izanik, Mugiro zen 1970erako neska-mutil eta gaztetxo erabat erdaldunak zituen ibarreko herrixka bakarra (Sánchez-Carrión, 1972, 67. or.). Duela gutxi arte adineko euskalki hiztun ugari zeuden, 80 urtetik goitikoak, karrikan euskaraz aritzen zirenak; gehienak azken 5-6 urteotan hil dira eta gaur 70 bat urtetik aitzinako mugiroar gutxi batzuek bakarrik –ez denek– eman dezakete mintzo zaharraren lekukotza. 1960 aldera sortu gure berriemaileari eta anaia-arreba guztiei euskaraz egin zieten gurasoek umetan, baina erabili ez eta atzendu egin zuten denek; berriemaileak herritik kanpo berreskuratu zuen urteen joanean. Mugiroko gazte guztiak euskaldunak dira gaur eta euskararekiko interesa bizkortu egin da, baina herriko hizkera galtzear dago. Mintzaira tradizionalen eremuaren muga dagoen Madotzi dagokionez, luzaroan Lekunberrira baino Irurtzun aldera begirago egon den herri ttipi hau nekez sailka daiteke inongo taldetan, oso biztanle gutxi izanik. Aurreko urteetan adin handiko bizilagun batzuk zendu eta familia bakarra bizi zen Madotzen 2018an; herrian sorturiko bi euskalki hiztun baino ez zeuden, adinekoa bata eta 40 urte ingurukoa bestea. Segida eten egin da ordea, gaztetxoek euskara estandarra baino ez baitute ikasi.

Ikusienez eskuetako eriekin kontu ditzakegu Errazkindik landara tokian tokiko hizkerak gutxi-asko beretu dituzten haur larraundarrak; ibarrean barrena ez dakusagu hizkera horien etorkizuna bermatzeko adinako hiztun multzorik. Herri ttipiak husten ari direla eta herri horietara heltzen ari diren biztanle gazte batzuk kanpotarrak direla ikusita, ematen du euskarak Lekunberrin izandako bizkorraldia sendotzearekin batera hizkuntzak ibarrean barrena atzera ez egitea dela erronka nagusia.

73 Ergoieneko Lizarragan, dena den, Larraungo euskarari eutsi dion 50 urte inguruko arruiztar bat bizi da.

5. SAKANA⁷⁴

Irurtzundik Ziordiar bitarteko hamabost udalerrik osatzen dute Sakana. Hiru eremu nagusitan dago banaturik: Arakil, Aranatz eta Burunda. Aurreko eskualdeak ez bezala hazi egin da joan den mendean zehar eta azken hamarkadetan populazioak egonkor iraun du, baita Altsasu eta Irurtzun kontuan hartu gabe ere⁷⁵.

Gaztelania aspaldi Arabako Lautadatik zein Iruñeritik sarturik, eskualdearen erztetan ihartu ziren aurrenik tokian tokiko hizkerak. Arakil ibarrean gutxi izan ziren joan den mendea hasi zenez geroztik euskara etxean jaso zuten haurrak; hori dela eta 2000 inguruan zendu ziren Arakilgo euskararen azken labekadako lekuko gehienak: Ihabarko Micaela Huarte Arraras (1995), Satrustegiko Jose Miguel Goitia Madoz (1996), Murginduetako Vicenta Aldaz Osinaga (2003) edota Urritzolako Bautista Etxarren Otamendi (2001)⁷⁶. Azken honen seme Ignazio Etxarren Lakuntzak (1933-2017) ongixko gorde zuen ibarreko mintzoa eta bera izan zen ziurrenik bere belau-naldiko bakarra. Hura desagerturik⁷⁷, tokian tokikoaren jarraipena Arakildik ezker azertu behar da.

Mintzaira tradizionalen bizitasunari dagokionez Pirinioa, Iruñe inguruko ibarrak, Basaburua edo Imotz ez bezalakoa da Sakana. Haietan ia non-nahi eta salbuespenik gabe egin du atzera eredu dialektalak, hegoaldeetik edo sortaldeetik heldutako uhinen eraginez; Sakanan, gibelatzea gertatu den arren, ezaguna da euskalkia herri batean oso bizirik eta ondokoan itzaltzeko zorian egon daitekeela. Ez da gaur goizeko dinamika; duela berrogeita hamar urte Sánchez-Carrionek alde nabarmena ikusi zuen herri batzuetatik besteetara Ziordia eta Irañeta bitarteko eremuan; euskarak Arbizun, Ergoienan eta Urdiainen zuen bizitasuna azpimarratzeko modukoa iruditu zitzaion. Sasoiko samar diraute oraino tokian tokiko hizkerak Sakanako herri batzuetan, baina duela mende Erdiko argazkiak ez ditu azaltzen ahal izan diren galera-berreskuratzeak, eta are gutxiago eredu dialektalaren eta estandarren arteko elkarrekintza. Gaur euskalkiaren gizaldiz gizaldiko transmisioa Sakanako zazpi herritan dago bizirik baina ez da inola ere homogeneoa, hainbat oztopok baldintzatzen dute eta herriren batean zeharo ahulduta dago.

74 Hauek izan ditugu Sakanako berriemaile nagusiak: Izaskun Andueza, Floren Beraza, José Bergera, Jose Luis Erdozia, Aner Galartza, Mikel Galartza, Nemesio Galartza, Miguel González de Mendigutxia, Idoia Gurutxarri, Txomin Huarte, Aitziber Irigoien, Ane Miren Iruretagoiena, Alicia Izko, Adelaida Kintana, Iñaki Lizarraga, Ainara Lopetegi, Miren Mendinueta, Martin Miranda, Javier Mozo, Miren Resano, Josune Ricardo, Estitxu Ruiz, Patxi Satrustegi, Txane Senar eta Celestino Zubillaga. Ezinbesteko laguntza eskaini digute Manuel Bergerak, Bitoriano Gabirondok, Jesús Senarrek, Castillo Suarezek eta Aitziber Zubietak.

75 Bada salbuespenik, ordea. Irañetak bi biztanletik bat galdu du 1950etik eta Ergoienak hirutik bi.

76 1980ko hamarkadan Koldo Artola nekaezinak Bautista Etxarreni eginiko galderei eta urritzolarren erantzunei esker Irurtzundik beheitiko hainbat hiztun identifikatu ahal izan ditugu. Zorretan gaude biekin.

77 1928an sorturik umetan euskara oso zeharka jaso zuen etxeberriar batek asko ulertzen du Arruazu aldeko hizkera. Irurtzuni dagokionez, Bautista Etxarrenek 1970eko hamarkada aldera hildako gizon euskaldunak ezagutu zituen eta 1981ean herriko andere euskaldun bat bizi omen zen. Ez da erraza Irurtzundiko azken hiztunen berri jakitea; 2001ean biztanleen % 3 eskas zen herrian bertan jaioa (Apalauza, 2012, 31. or.).

Irañetan dago gaur, doi-doia, belaunez belaun iraun duten mintzo sakanarren sortaldeko muga. Euskalkiaren transmisioa gerra aurreko urteetan hasi zen zartatzen; 1935ean⁷⁸ haurrek euskaraz egiten zuten (Irigarai, 1956, 46. or.). 2013an herriko hizkeran aritzeko gai ziren 75 urtetik goitiko lau hiztun identifikatu genituen; orduetik Justo Zudaire Larraza (1925-2013), Timoteo Beraza Goldarazena (1922-2019) eta Pedro Ganboa Huarte (1931-2020) desagerturik, Irañetako euskara dialektala guztiz iraungitzear dago.

1865erako tren geltokia izanik Uharte Arakilek aspaldikoak ditu bidaiarien joan-etorria eta kanpotarren agerpena; karrika duela urte asko hasi zen erdalduntzen. Transmisioaren etena Irañetan baino apur bat lehenagokoa da. 1925-30etan mutiko gazteek bederen euskaraz egiten zuten kalean⁷⁹, baina urte haietan bertan hasi ziren haurrak erdalduntzen⁸⁰. Etena, dena den, ez zen guztiz homogenea izan. Batetik, gizonezkoek emakumezkoek baino zertxobait luzeago eutsi zioten euskarari⁸¹. Bestetik, herrian bertan sortutako guraso bikoteek hizkuntza irakasteari utzi ostean, herri euskaldunagoko aita edo ama zuten sendi batzuetan jarraipena izan zuen. Azkenik, mintzoaren segida Uhartean erabat agorturik, Arruazurako bidean dagoen Amurgin etxaldean –hiruzpailau etxe baino ez– puska batez iraun eta 1960ko hamarkadan izan zen transmisio kasuren bat. Dena den, 1970eko hamarkadarako, euskara *Exkurra*, *Artola* edo *Barberoa* bezalako etxe gutxi batzuekin lotutako hizkuntza omen zen uhartetar askoren iduriko. Gaur egun bakanak dira herriko mintzoa haur-haurretan jasotako heldu eta adinekoak, eta batzuk beste hizkera batekin nahasian hartu zuten haietarik dira, gurasoetako bat kanpokoa izanik. 80-90 urte bitarteko bi gizonezko behintzat Uharteko euskara garbia dute, batek honezkero higatu samar. Ez dugu emakumezkoak identifikatu ahal izan.

Arruazun gerra amaitu berritan izan zuen euskarak urradura nagusia, 1945 aldera, hizkuntzari ezarritako trabak begi bistakoak izanda autoestimua linguistikoa inoiz baino beheratuagoa zegoen garaian. Zenbait etxetan hizkuntzaren jarraipena eten, kalean euskara bakantzen hasi, eta eutsi zioten haurrendako herriko giroa ez eskolakoa alde ez izanik erdalduntzea areagotuz joan zen. 1970erako 20-30 urtetik gorakoek baino

78 Irañetatik eskuin nabarmena zen ordurako euskararen gibelatzea: ondo-ondoko Ihabarren 30 urtez azpikoak ez ziren mintzatzeko gauza eta 50 urtetik gorakoak besterik ez ziren aritzen; sortaldetako, Hiriberriin, 50 urte ingurukoek ere erdara zerabilten (Irigarai, 1956, 46. or.).

79 Uharteko gure berriemailearen aita zenak ez zuen etxean ume-umetan euskara ongi bereganatu, mintzatzeko trebe ez zen Satrustegiko ama izanik; karrikan ikasi zuen, adin bereko mutikoen artean gehienbat, familia 1925ean Arakil aldetik Uhartera aldatu zenean.

80 1932an Aingeru Irigarai Uharteko gazteak zoriondu zituen trenbideak herria zeharkatu arren erdara ez baitzen nagusitu (Bidador, 2003, 122. or.), baina urte berean Inozentzio Aierbe uhartetarrak salatu zuen Uhartean eta inguruko herrietan apez euskaldunak elkartu eta erdaraz aritu ohi zirela, «oartugabe zer kalte egiten duten bere inguruan dauden umetxoetan [...] Gure errietako umetxoak begiak argiak ditue ikusteko bere inguruan gertatzen dana eta belarriak erne aditzeko itz egiten dana» (Bidador, 2003, 58. or.).

81 Herrian betidanik azienda asko egon da eta Aralar aldera bidaltzen zituzten; han harreman estua egon ohi zen larraundarrekin, eta haiekin moldatzeko erreminta zen euskara. Egiteko hartan gizonezkoak ibili zirenez batez ere, hori izan liteke euskarari luzeago eutsi izanaren arrazoietako bat; Sánchez-Carrionek 1970ean jaso zuenez gizonek zerabilten batik bat (1972, 42. or.).

ez zuten erabiltzen euskara, eta gazteagoentzat arrotza zen oro har (Sánchez-Carrión, 1972, 46. or.). Ordurako guztiz erdalduna zen Arruazuko karrika, eta euskararekiko lotura ahulduz joan ahala hiztun anitzek erdarara jo zuten⁸². Arruazuar batzuk prozesu hori irauli eta euskarara hurreratu ziren atzera, inguruko heldu eta adinekoren bat erakarritz, baina beste batzuk zeharo urrun gelditu dira.

Euskalkia belaunez belaun txukun jaso zuten hiztun gehienak 75 urtetik gora dabil-tza gaur: zenbaitek erdaraz egiten dute beti lehen hitza, edota euskara egoera jakinetan erabili. 40 urtez gorako arruazuar gutxi batzuek herriko mintzaira nahiko ongi gorde dute, eta Sakanako beste hizkerekin nahasita ematen duenik ere bada. Gainerakoan, adinean beheitiago eta nabarmenagoa da euskara batuaren nagusitasuna. Bertako hizkera ahulduta duten Arruazu bezalako gune ttipietan⁸³ ia ezinezkoa da gazteek hari eusteko moduko erreferente linguistiko sendoak topatzea. Aita edo ama erdalduna den etxeetan nekez izaten du herriko mintzoak zirrikiturik; bikote euskaldunetan, bestalde, ez da ohikoena biak arruazuarrak izatea, eta gurasoetako bat herri euskaldunagokoa bada hango hizkerarekin nahasiko da Arruazukoa, eta nahastean galtzaile atera, eskuarki. Honen guztiaren ondorioz, etxeokari eutsi zioten helduen seme-alaba gazteek ere eredu estandarrera jotzen dute, edo gehienez ere eredu hori Sakana aldeko –nekez Arruazuko bertako– hitz gutxi batzuekin bustitzera. 30 urte inguruko gazte arruazuarrak erdaraz aritu ohi dira karrikan, euskararen erreferentetzat jotzen duten pertsonetako bat elkarrizketan sartu ezean; gaztegoek euskaraz egin ohi dute, Sakanan zeharreko euskara eta batua nahasiz, erdaldunik tartean sartzen ez bada. Adinekoak ez diren helduak erdara hutsean aritu ohi dira. Arruazuko karrikan, laburbilduz, erdara da nagusi, eta herriko hizkera gibelka doa etengabe, etxean entzun duten gazteengana iritsitako pizarrak pizar.

Lakuntzako mintzoa arras higituta dago gaur. Joan den mende hasieran euskara zen nagusi herrian⁸⁴. Blas Alegria herrikide euskaltzalea zuten lakuntzarrek apez gerra hasi zenean, baina ondorengo bikarioaren eta maisuen eragina hizkuntzaren kalterakoa izan zen, eta adineko zenbaitengan oraindik txertaturik dagoen autoestimu linguistiko eza errotu zen. Bestalde, 1950eko hamarralditik aurrerako industrializazioak Extremadura eta Jaén aldeko langile isuri handia erakarri zuen: 1970erako Lakuntzako biztanleen % 30 baino gehiago zen eskualde haietako (Sánchez-Carrión, 1972, 43. or.). Etorkin haiek ez zuten euskararik ikasi eta haien seme-alaba gehienek ere ez: kanpora lanera joandako lakuntzarrek balio handiko erremintatzat zuten gaztelania irmo finkatu zen herrian bertan ere. Honek guztiak bultzatuta asko ahuldu zen euskararen segida urte gutxitan. 1950 aldera sortu lakuntzar ugari urrunduz egin ziren gaztaroan etxeko mintzotik –guztiz ere neska gazteak– baina heldutan aurkako bidea egin eta ez zuten atzendu; urte batzuk geroago jaiotako zenbaiti, ordea, erdara hutsean egin zieten gurasoek.

82 Horrekin batera, guraso askok luzaroan izan zuten alabei semeei baino erdara gehiago egiteko joera.

83 Arruazuk 110 biztanle zituen erroldaturik 2019an.

84 1912ko udan «Euzker-aldez» ezizeneko berriemaile batek Lakuntzan jaso zuenez, neska gazteak euskaraz mintzatzen ziren gehienetan, eta premia zegoenean besterik ez gaztelaniaz (*Napartarra*, 1912-10-12).

1970ean, Sánchez-Carrionen arabera, 17 urtetik gorako mutikoek menderatzen zuten euskara Lakuntzan (1972, 43-44. or.); adintsuko neskek erdaldunak ziren. Mende erdi beranduago 65 urtetik goiti dabiltzan gizonezko lakuntzarrak aise moldatzen dira herriko euskarari, eta sarriago erabili ohi dute gaztelania baino. Emakumezkoek ez dute horren ongi gorde; badira bizitza osoan euskaldun iraun dutenak baina beste asko elkarri erdaraz egitera ohitu, haurtzaroko hizkuntza baztertu eta adinean goiti hasi dira herdoiltzera utzitakoa berreskuratzen. Haurrekin soilik erabiltzen dute zenbait emaztekik euskara, eta sarritan haurtxoek eta adinekoek desberdinegi sumatzen dute elkarren hizkera.

Aipatu adinetik beheiti nabarmena da Lakuntzan eredu dialektalaren ahultasuna, jarraipena guztiz zatikakoa izan baitzen, sendi batzuetara mugatua eta bi gurasoak lakuntzarrak izateari oso atxikia. 50 eta 60 urte bitarteko lagun gutxi eutsi diote; gizonezkoek eta herriko bikotekidea dutenek errazago. Umetan euskara baturik ezagutu ez zutenek hiztun hauek hurbilago sentitzen dute euskalkia eta batzuek seme-alabei transmititu diete, baina gaur adinekoekin aritzeko erabiltzen dute batez ere, ez gazteagoekin. 40-50 urteko euskalki hiztunak ere ez dira asko; zaharragoek ez bezala euskaraz ikasteko aukera izan zuten⁸⁵ eta hauen baturanzko joera handia da. Belaunz belaun ikasitakoa egoera jakinetan baliatu ohi dute, sarriago etxean karrikan baino: adinekoekin, senide batzuekin edota etxarriar, arbizuar zein ergoindarrekin –azken egoera horietan, ausaz, lakuntzar izatearen erakusgarri–. Adiskide taldeetan, hiztunek ahalegin kontzientea egin ezean, euskara batua eta gaztelania dira nagusi: ez dago Lakuntzako mintzoaren aldeko inertziarik. Gizonezkoek erdararako isuri handiagoa dute eta emakumezkoak saiatzen dira bereziki herriko hizkera erabiltzen. Bikote lakuntzarrak izatea, adin talde horretan ere, jarraipenaren aldeko faktorea izan da. Badaude 20 eta 40 urte bitarteko euskalki hiztunak ere baina identifikatzea ez da erronka samurra; hango eta hemengo jende nahasketa handia izan da herrian eta zaila da Lakuntzako garbi transmititu zuten guraso bikoteak topatzea. 30 urtetik goitiko hiztun multzo txiki bat badago eta are txikiagoa ematen du adin horretatik beheiti. Nahiz eta hogeitaka urteko lakuntzar guztiak euskaraz eskolatu ziren erdarara jo ohi dute karrikan elkarren artean, guztiz ere guraso ez badira; aita eta ama bihurtzean euskaraz egiten diete seme-alabei, transmisio gogoak akuilatuta, baina etxekoa jaso zuten askok lanak izaten dituzte gero hartara itzultzeko.

Lakuntzako hizkeraren transmisioa ez da guztiz eten baina herriko mintzoa oztopo nabarmenek inguratuta bizi da, itobeharrean, guraso euskalkidunen eta seme-alaben arteko harremanean sarritan nagusitu ezinda. Euskaraz eskolatu ez ziren 50 urte inguruko lakuntzar gutxi batzuek eredu dialektala irakatsi dute etxean. Zenbait guraso gazteagorik, aldiz, kosta egiten zaie seme-alabekin estandarren gurpilean ez erortzea eta ahalegina egin behar izaten dute; batzuetan une konkretuetan baino ez da herrikoa azaleratzen (ipuinak irakurtzean, inguruko herrietako hiztunen aitzinean), eta beste batzuetan gurasoak ez eta osaba-izeba edo aitona-amonak dira haurrak euskalkira

85 1970eko hamarkadan hasi ziren Lakuntzako neska-mutikoak euskaraz ikasten: sei bat urte lehenago ikastolara joan zirenak herriko eskolan ibilitakoak baino.

hurbiltzen dituztenak. Lakuntzako euskara entzuteko aukera duten neska-mutiko asko Etxarriko ikastolara joaten dira⁸⁶ eta eskolakide etxarriar edo arbizuarrekin ari direnean etxetik dakarten hizketa solaskidearen herrikoarekin nahastera jotzen dute maiz. Herrian bertan, haur lakuntzarrak batuan edo gaztelaniaz aritu ohi dira; oso gutxitan herriko euskaran, mutilak bereziki. Laburtuz, bakanak dira Lakuntzako mintzoa transmititzen ari diren familiak, eta hagitz gutxi hura txukun hartzen ari diren 14 urtetik beheitik neska-mutilak; eskuetako hatzekin zenbatu litezke ziurrenik, nahiz eta beste zenbaitek arrasto apalen bat bereganatu (hitz askeak, esaerak...). Herriko hizkera jaso duten horiendako ez da erraza izango eredu estandarretik bereiz gorde ahal izatea.

Sortalderagoko herrietan ez bezala, Arbizun euskalkiaren belaunik belauneko jarraipenak ez du urradura sakonik izan eta adin guztietako hiztunek eutsi diote⁸⁷; diktadurapean, inguruko herri batzuetan transmisioa higatzen hasia zelarik eta agintariak euskara gizarte jardueratik egoztera jo zutelarik, hizkuntzaren aldeko eragile garrantzitsua izan zen Juan Goikoetxea apaiz lezaetarra⁸⁸. Gaur, adinekoek ez ezik herriko heldu eta gazteek ere jaso dute eredu dialektala, Arruazun edo Lakuntzan bezalako hutsunerik gabe; 30-40 urteko arbizuarrak gauza dira egoeraren arabera eredu estandarra nahiz euskalkia erabiltzeko, eta goi mailako ikasketak egitean ere etxeko hizkerari eragin gabe baliatu izan dute eskolari esker jasotakoa. Arbizun ez zen errotu gaztelaniaz aritzeko ohitura –Sakanako herri batzuetan aski ezaguna–, eta leku askotan ikusi dugun neska gazteen erdararako joera ere ez. Lan honetan dagoeneko deskribatu dugunez, tokian tokikoa ahulagotu den auzo herrietako gazte batzuek sarriago entzuten dute egunerokoan Arbizuko mintzoa etxekoa baino; nekez gertatzen da alderantziz. Kanpotik heldutako zenbait gizonetako erdaldunek adiskide taldea egin dute Arbizun, baina gainerako herritarrek ez dute erdararik baliatzen eta kale giroan euskarara jotzen da naturaltasunez.

Horrek ez du esan nahi heldu gazteen artean inolako galerarik izan ez denik. Hita-noa maldan behera doa Arbizun: 35-40 urte inguruko gizonetokari eutsi diote baina emakumeek galdu egin zuten noka⁸⁹. Ia non-nahi bezala antzinako tresnak izendatzeko hitzen ezagutza ere galbidean dago. Kezkarik handiena, ordea, egungo haurren bilakaerak eragin du. Euskalkiak indarra du gazte eta are nerabeen artean ere, baina

86 2017/18 ikasturtean 3090 neska-mutil zeuden Sakanako ikastegietan, bederatzi herritan banaturik. Sei herri tokian tokiko mintzoen eremu barrukoak ziren (Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi eta Urdiain) eta HH zein LHko 834 ikasle hartzen zituzten, % 98,8 D eredukoak. Hiru herri eremu kanpokoak ziren: Olazti, Altsasu eta Irurtzun. Azken bietara inguru zabalagoko neska-mutilak heltzen dira. HHTik Batxilergo eta Lanbide Heziketara bitarteko 2256 ikasle zebiltzan hiru herrietan, D eredukoak % 72,2 zirelarik.

87 «El euskera es la lengua usual que se mantiene con una extraordinaria vigencia» (Sánchez-Carrión, 1972, 41-42. or.). «Badirudi oreka mantendu ahal izan dela, herriko hizkeraren eta batuaren artean, azken hau irakaskuntza arloan baino erabiltzen ez delarik» (Erdozia, 2001, 26. or.).

88 Berrogei urtez aritu zen Arbizun (1933-1973). Goikoetxea dela eta, ik. Iñigo (2005).

89 Etxeetan aitek hika mutikoei egin izan dietelako gertatu zatekeen, edota mutilak neskak baino sarriago gelditu izan direlako Arbizun, une jakin batean askok Lanbide Heziketaren hautua egin zutelarik (herritik alde egin gabe) eta neska ugarik, aldiz, unibertsitatearena. Nokaren higatzea dela eta ikus, besteak beste, Azkuek (2000) Zumaian edo Ozaitak (2014) Tolosaldean egin ikerketak. Etxanizek dioenez (2001) hitanoa neskek mutilek baino lehen galdu izana oso hedatuta dago.

azken urte hauetan 14 urtez beheitikoek ez dute taldean horrenbeste erabiltzen eta ez daude nagusiagoak bezain arbizuerara lotuta. Horren atzean eredu estandarren indarra egon daiteke, herri inguruko irakasle kopurua gutxitu izana, edo bikote arbizuar gazte zenbaitek seme-alabei batuan egitea; baina aldaketa azaltzeko –eta haurrek karrikan gero eta sarriago ageri duten erdararako joera ulertzeko– nahitaezkoa da kontuan hartzea azken 10-15 urteotan kanpotik iritsitako gurasoen eragina: ez dira denak euskaldunak, ezta euskal eremuetatik joandakoak ere. Duela 25-30 urteko haur taldeetan ohikoa zen bakar batek izatea herritik landako aita-amak; egun, aldiz, horrelako zenbait egon ohi dira. Guraso horien euskararekiko jarrera ez da homogenea, eta bikote kanpotar gutxi batzuek 10 urtetik gorako seme-alabak eskualdeko A ereduko ikastegietara eramaten dituzte.

Laburbilduz, Arbizu Sakanako mintzoen arnasmune nagusienetakoa da, bertakoa oso bizirik dago –batuaren ezinbesteko agerpena gorabehera– baina ahultasun zantzuak agertu ditu hurrengan, eta heldu den urteetan ikusiko da norantz egingo duen belaunaldi horrek. Iraun dezake Arbizuko euskararen transmisioak, denboran zeharreko aldaketak aldaketa, baina aurrerantzean orain arte baino zailagoa izan daiteke.

Etxarri Aranatzek inguruko herriek ez bezalako hazkundera izan du joan den mendearen erdialdetik. Nekazaria izan zen funtsean, eta ia guztiz euskalduna, 1960ko hamarkadara arte. Handik harat industria garatzen hasi zen, sakanarrak biltzen zituen azoka-gunea hango eta hemengo beharginen erakergune bihurtu zen, eta urte gutxitan aldaketa deigarria izan zuen Etxarrik. Kanpotarrak ugaritu ziren, ageriago egiten hasi zen ordura arte gutxik zerabilten gaztelania, euskarak lehendik ere gainditu beharreko oztopoei behar berriak zekartzan bizimodu aldaketa gehitu zitzaion, eta ahulgunea sortu zen herriko mintzoaren transmisioan. Sarritan bezala neska gazteak erakarri zituen lehenbizi erdarak baina 1960-70etan hainbat mutilek ere baztertuxe utzi zuten euskara eta harreman askotan gaztelania nagusitu zen. 1950eko hamarkadan jaiotakoek Etxarri euskaradunaren pertzepzioa izan zuten umetan, baina hamar bat urte gazteagoek indartsu sentitu zuten erdara. Txepetxen ikerketa garaian (1972, 41. or.) euskara ez zegoen galbidean Etxarrin, inguruko sakanarrekiko harremanari eutsi beharrenden ondorioz; bai ordea gaztelaniarekin lehian, hizkuntza batek bestea ezin gainditurik. Herriko mintzoaren transmisioa ez zen urte haietan zeharo eten, baina kolokan gelditu zen guraso biak euskal hiztunak izan ezean (1972, 55. or.). Ahulgune hark euskalkiaren jarraipenean eragin zuen ezinbestean: gaur 65 urtetik goiti dabilzan etxarriarrek ongi heldu zioten, baina 50 eta 65 urte bitarteko batzuk zeharo urrunduz zitzaizkion. Gazteagoen solasean eredu estandarra eta herriko hizkera nahasita dabilza maiz, ez beti neurri berean.

Beste herri batzuetan bezala, Etxarrin ere irakaskuntza ezinbesteko tresna izan zen erdararantz lerratutako haien seme-alabak euskaldundu eta hizkuntza indarberritzeko (Erdozia, 2001, 26. or.)⁹⁰. Alabaina, eskolak ezin izan zituen bete euskalkiaren

90 Etxarriko ikastolak 1969an eman zituen lehen urratsak, Olatzagutikoarekin batera Sakanako lehenetarik izan zelarik (López-Goñi, 2002, 271. or.).

transmisioan sorturiko arrakalak eta euskaratik aldentutako etxarriaren ondorengo askok eredu estandarra jaso dute batik bat. 45 bat urtez azpiko herritar ugarik bertakoa (ere) entzun zuten etxean eta bizirik dirau haiengan, baina eskolan ikasitako hitzek ederki hornitua. Nekazal munduko irudi asko desagertu ahala haiek izendatzeko eleak atzendu egin dira, eta lanbide berriek sorrarazitako hiztegi erdalduna barneratu da; pobretutako lexikoa gaztelaniak gero eta gehiago aldrebesteko arriskua dago. Hitanoa izugarri galdu da eta 60 urtetik gorakoek besterik ez dute erabiltzen; saiatzen diren gazteek nahiko trakets baliatu ohi dute.

Haatik, Etxarriko belaunez belauneko hizkeraren sustraiak ez dira lehortu, eta ematen du egokituta bada ere izan dezakeela jarraipenik. Badaude 30-60 urte bitarteko hitzun garbiak eta haur zein gazteen ezagutzak gora egin du 1970eko hamarkadako egoerarekin alderatuta; herriko mintzoarekiko interesa eta estekamendua hazi egin dira. Atzo baino gehiago dira herrian euskalkia transmititzen ari diren bikote etxarriarrak (edo Sakanan zeharrekoak). Etorkizunean batuak eta etxarriak elkar elika lezakete, ahozkorako eta lagunarterako herrikora hurbilduz eta egoera formalagoetan eredu estandarra hobetsiz. Euskararen kale erabilera Sakanako altuenetakoa da eta ez dira gutxi gaztetan erdaraz ariturik adiskide taldean umetako hizkuntzara itzuli diren helduak⁹¹. Etxarri Aranatzki dagokion Lizarragabengoa herrikkako mintzoak, bestalde, Arbizurantz egin du; lehen nabarmenagoa zen Etxarriren itzala. Oso gune ttipia da, ia guztiz euskalduna, eta ongi bermatu da gaur arte euskalkiaren belaunez belauneko jarraipena.

Ergoiena ibarrean Sakanan zehar inon gutxi bezain bizirik dago tokian tokikoaren transmisioa, baina jarraipena oztopatzen ari diren faktoreak begi bistakoak dira. Jendez hustea, esaterako, etengabea izan da 1950etik eta nabarmen ttipitu dira hiru herriak; Unanu, oroz gain⁹². Hurbileko udalerrietan baino kanpotar gutxiago bizi dira, baina gero eta haur gutxiago ere bai.

Lizarragar adintsuenetako batzuek ez dute gaztelaniaz hitz egiteko erraztasun handiegirik –kanpora lanera irten ez zirenek batez ere– eta eredu estandarra urrun sentitzen dute oro har 65 urtetik goitiko guztiek, ibar osoan zehar bezala; herriko hizkeran mintzatzen dira, non eta ez duten edadetu kanpotar bakanetako bat solaskide. Aipatu adinetik beheitiko helduak ere euskalkidunak dira, baina 40 eta 50 urte bitarteko gizon-emakume gehienak elkarrekin gaztelaniaz aritzera ohitu ziren nerabezaroan⁹³ eta gaur egun ere, gurasoekin herriko euskaraz solastu arren, erdarara jotzen dute gainerrako senideekin eta adinkideekin. Ez ordea 30-40 urtekoek. Horiek, eskolan ikasitako

91 Kasaresek aztertutako Iruritako kasuak eta Etxarri Aranazkoak badute kideetasunik, Baztango herrian ere jarraipena eten eta gero estekatze prozesua gertatzen ari baita (2014, 175. or.). Iruñeko ikertzailearen esanetan estekatze hori errazagoa da Iruritak (eta Etxarrik) bezala lehendik euskara izanik uneren batean ahuldu zitzaizen familia ugari dituzten herrietan, familia euskaldun berri asko dituztenetan baino.

92 Lizarragak 172 biztanle zituen 2019an, Unanuk 91 eta Dorraok 109.

93 Euskaraz ikasi zuten lehenbizikoak izan ziren; herriko eskolan ume-umetan eta Etxarri koskortutakoan. Herritik atera eta ordu hartako gelakide etxarriar euskaldun asko erdaraz aritzen zirela ikusteak eragin zien beharbada Lizarragako gaztetxo haiei.

batua harreman formaletarako utzita, euskalkia baliatzen dute herri giroan; hamar bat urte zaharragoek baino indartsuago eutsi diote, nahiz eta galdu egin dituzten hikako moldea (esamolde jakinetarako ez bada)⁹⁴ edota adinekoek darabilten zenbait hitz. Hogeitaka urteko lizarragar gehienak ibarreko euskaran aise eta ongi moldatzen diren arren, erdararako joera handiagoa dute. Nerabeen artean ere badu oraino indarrrik tokian tokikoak, baina nerabezeroan sartu diren neska-mutil zenbaitek sarri jotzen dute gaztelaniara karrikan eta haien presioak euskalkiari atxikita hazten ari diren haurrei eragin liezaieke.

Lizarragako hizkeraren transmisioa ez da eten. Sei eta hamalau urte bitarteko dozena bat haur dago herrian eta ez dira gutxi Ergoieneko hizkera jasotzen ari direnak. Transmisioak, haatik, behinola ez bezalako hesiak gainditu behar ditu. Guraso bikote gazte guztietan kide bat bederen kanpokoak da; beraz, aita edo ama bakarrik izan daiteke herriko mintzoaren emaile, eta bikotekide sakanar batzuk euskalkia bizi den herrietakoak izanik zenbait neska-mutil herri horietako hizkuntza ezaugarri ugari ari dira barneratzen. Nabarmena da bereziki Etxarrik duen itzala, Lizarragako haur bakanek hantxe baitituzte eskola eta –gero eta sarriago– adiskide taldeak. Bestalde, arestian esana den gisan adin jakin bateko aita-amek erdarara jo ohi dute elkarren artean, eta bada gainera euskalkia berezko izan arren seme-alabekin euskara batuan ahalegin-tzen denik. Ergoienetik landa bizi diren guraso lizarragar batzuk ibarreko mintzaira transmititzen ari dira, baina giro erdaldunagoan egonik eredu estandarrek etxekoa kamusteko arriskua dago; kasuren batean bederen halaxe ari da gertatzen. Ez da aise izango egungo haurrek eredu dialektalari atzokoek bezain irmo eustea; hizkuntzarik erabiliena euskara izatea ere aurreko belaunaldietan baino nekezagoa izan daiteke.

Dorrao eta Unanu elkarren baitara bilduago bizi dira Lizarragara begira baino; dena den, horietan ere ia ez da herrikideen arteko bikoterik, kanpotarrak Sakanan barrena baino gutxiago dira eta bizizale gehienek jaso dute ibarreko mintzoa. Bada ordea bi herrien arteko alderik. Unanuar ugarik egin dute alde sorlekutik eta biztanleak erditara urritu dira 1980tik; Dorraon populazio galera murriztagoa izan da eta gazte eta haur gehiago daude. Bizirik dago euskalkiaren transmisioa herri batean zein bestean, baina jarraipenerako oztopoak ez dira nolanahikoak eta Unanun handiagoak direla ematen du.

Azken hamarkadetan Dorraotik alde egindako sendi zenbaitek bazterrean utzi dute euskara –Iruñerrira joandako batzuek batik bat– baina jaioterrian gelditu diren guztiek transmititu dute gaur arte. Adinekoentzat urruna da eredu estandarra, eta helduen artean ere euskalkia da nagusi, nahiz eta 50 urte inguruko zenbait emakumek elkarri gaztelaniaz egiteko joera izan. Ondoren jaio ziren dorraoarrak euskaraz eskolatu ziren, baina 25 urtez gorakoek hizketa informalean darabilten mintzo bakarra etxekoa da. Euskalkia ongi beretu gabeko hogeitaka urteko gazte batzuk heldu dira Dorraora azken hamarkadan; aspaldi Iruñe aldera jo eta transmisioa eten zuten herritar haien ondorengoetako batzuk dira. Hizkuntza mailan badute eraginik baina ez erabatekorik, herriko

94 Dorraon hobeki eutsi diote gaur arte hikako jardunari, gizonetakoek batez ere.

lagunarte euskaldunetara egokitzen ari baitira pixkanaka. Gazteak eta haurrak, bestalde, ez dira Dorraon sekula falta izan. Gaur 10 eta 20 urte bitarteko herritar gutxi daude, baina gazteagoak hamar bat dira eta gehienak Ergoieneko euskara hartzen ari dira. 30 urte inguruko aita-amek etxeko mintzoa transmititzeko borondate argia dute eta guraso zaharragoak seme-alabak izatearekin lotu zitzaizkion atzera eredu dialektalari.

Dorraoko euskararen jarraipena mehatxa dezaketen trabak agerikoak dira. Batetik, Lizarragan bezala bikote gazte guztietan gurasoetako bat bederen kanpoko denez badaude Arbizu edo Etxarriko hizkera hartu duten haur dorraoarrak. Bestetik, eskolako eredu estandarra arrasto sakonagoa ari zaie uzten egungo haurrei haien gurasoei baino; eta horrekin batera, eskolaren eta adiskide taldeen eraginez gero eta aiseago dabil-tza Etxarriko euskararen ezaugarriak neska-mutil batzuen mintzoan. Kontuan hartu beharra dago, azkenik, kanpoan bizi diren dorraoarren seme-alaba gaztetxo batzuek gaztelaniarantz erakarri ohi dituztela herrikoak elkartzen direnean. Dena den, badira Ergoienetik urrun bizita Dorraoko aita edo amaren euskara bereganatzen ari diren haurrak, eta herrian euskalkia ikasten ari diren guraso kanpotarrak. Etxean batu hutsa entzunik karrikan, adinkideen aldakan, herriko euskarara hurbildu den haurtxorik ere bada. Jarraipena ez da erraza izango baina Dorraoko euskara ez da oraino hats-gabetu.

Unanu izan da luzaroan Ergoieneko gunerik euskaldunena. Adinekoak euskara hutsean aritu ohi dira –ibar osoan zehar ohi den legez– eta herrian bizi diren helduak oso gutxi mintzatzen dira gaztelaniaz; emakumeek ez dute Dorraoko zenbaitek adinako erdal isuririk. 30 urtetik gorako unanuar guztiek darabilte euskalkia eta gazteago batzuek ere bai. Arazo larrienak, ezbairik gabe, jendez hustea eta gazte eskasia dira: familia askok alde egin dute azken hamarkadetan eta eredu dialektalaren jarraipenerako trabagarri da hori. Herrian gelditu diren unanuar gutxi dira 50 urtetik beheitikoak. 18tik 30era bitarteko hiru gazte baino ez daude, eta sei urtetik goitiko bi eskola ume bakarrik; askoz gehiago dira Unanuko aita edo ama izanik Iruñerrian hazi direnak. Gaztetxo horiek gurasoen jaioterrira joaten direnetan ez dira euskalkian ez eredu estandarrean mintzatzen eta etxeko hizkeratik erdararantz bultzatzen dituzte herriko adinkide bakanak. Unanuko aita edo ama duten zenbait haur jaio dira azken sei urteotan, kanpoan zein Unanun bertan; ez da erraza jakiten zenbateraino beretuko duten eredu dialektala. Nolanahi ere, transmisioaren etorkizuna Dorraon baino zalantzasagoa iruditzen zaigu.

Aski ezaguna da Etxarritik ezker hedatzen den Burundan zehar ia non-nahi daudela tokian tokiko mintzoak ondoko Aranatzan baino higituagoak edo itzalita. Bakaikukoa ez zegoen etenda gerra aurreko urteetan, baina 1925ean jaiotako Aita Frantzisko Ondarra bakaikuarraren haurtzaroan neskatoak mutikoak baino erdaldunagoak ziren (2005, 482. or.) eta karrika erdaraz mintzo zen ordurako; transmisioa gerra amaitu berrikan agortu bide zen guztiz. Sánchez-Carrionek 1970ean 40 urtetik gorakoek euskaraz zekitelat adierazi zuen (1972, 34. or.), baina aldi berean erdalduntze prozesuaren hasiera 1945-50 aldera ezarri zuen (1972, 39. or.). Guk jasotako datuak bigarren baieztapenetik hurbilago daude; izan ere, badira Bakaikun herriko hizkera ikasi zuten adineko gutxi batzuk, gazteenak 75-80 urtekoak. Identifikatu ditugun hiztunak hamar ere ez dira, gehien-gehienak gizonezkoak, egon daitekeelarik –lan honetan zehar maiz adierazi bezala– hizketarako gauza izanda gaitasuna agerian jartzen ez duen hiztunen

bat, auzoendako ikusezin bihurtzeraino; nekez arestian aipatu adinetik beheiti. Ez da zaila 40-50 urtetik gorako lagun gazteagoen ahotan herriko hizkerari dagozkion hitz edo esapideak entzutea, baina esan daiteke euskalkiak inon ez duela jarraipenik izan eta gaur arte gorde duten etxe bakanetan ere doi-doia transmititu direla arrasto batzuk. Horren erakusgarri hiru adibide emango ditugu. 80 bat urteko euskalki hiztun baten seme-alabek badakite euskaraz eta bertakoaren kutsua ez dute guztiz galdu, baina baturantz egin dute. Edadeko beste hiztun batek emazte erdalduna du eta etxean ez zuen euskararik irakatsi. Adinean oso goiti doan hirugarren batek euskarara jotzen du herriko haur txikiekin baina zaharragoekin ez, eta dagoeneko heldua den biloba euskaldunarekin erdaraz aritzen da; iduri luke hiztun honen gogoan euskara oso harreman jakinetarako besterik ez dela. Ondorengo belaunaldietan eredu estandarra nagusitu da; gazte gehienek dakite euskaraz eta euskararen aldeko jarrera dute oro har, baina gazte horien eta euskalki hiztunen arteko distantzia linguistikoa handia denez eta hiztunok adinean gorago eta bakartuago bizi direnez, ez da samurra izango behinolako mintzoa neurri batean bada ere etorkizunekoan txertatu ahal izatea.

Iturmendin Bakaikun baino lehenago hautsi zen transmisioaren katea⁹⁵. Bizi diren adin handiko euskalki hiztun iturmendiaren eta azken urteotan desagertu direnen artean ez dugu ezagutzen 1932 ostean sortutakorik; bai ordea 1920ko hamarkadan jaio eta zahartzaroan euskaraz mintzatzeko gauza ez zirenak. Badirudi, beraz, gerra hasierako etenda zegoela Iturmendiko mintzoaren jarraipena⁹⁶; urte haietan ez apaizek, ez Mantxa aldeko maisuek, ez 1936-1939 bitartean heldutako lekaiume kanpotarrek ez zioten euskarari zirrikiturik utzi. Umetan zenbait euskara kondar jaso eta mintzatzeko gauza ez den lagunen bat gorabehera, gerraondoan sortutako iturmendiarrak guztiz erdaldun hazi ziren. Ondorioz, oso gutxi eta adintsuak dira herriko hizkeraren lekukoak. Lau besterik ez ditugu identifikatu eta gazteena 90 urteak betetzear dago. Gizonezkoak dira guztiak, azken emazteki euskalkiduna 2020 hasieran hil baita, antza.

Gure berriemaile nagusia 1962an jaio zen. Herriko senide helduen ahotan entzuten zuen hizkuntza Etxarriko adinkideek bazekitela ikusi eta haiei ezin ulertuak akuilatuta euskaldundu zen gaztetan. Bestek ere egin zuen ahalegina; hori dela eta, 55-65 urte bitarteko lagun gutxi batzuk euskal hiztunak dira. 40 urtetik beherakoek eskolan jaso dutelako hedatu da berriz euskara Iturmendin. Egun Lehen Hezkuntza amaitu arte herrian bertan eskolatutako haur guztiak D eredukoak dira. Euskararen kale erabilerak gora egin du azken hamarkadan (SHK, 2016, 27-28. or.) baina aldea dago gazte talde batzuetatik besteetara. Zenbait gurasok euskara hutsean egiten diete seme-alabei, baina badira kanpoko aita-ama erdaldunak ere eta Iturmendin bertan sortutako ugari ez dira zeharo aise moldatzen euskaraz; horrek guztiak erraztu egiten du gaztetxoek gaztelaniara jotzea.

95 Sánchez-Carrionek Altsasuren eraginari egotzi zion (1972, 38. or.). Bakaiku, aldiz, luzaz lotu izan zaio basoko lanari eta horrek Etxarrirekiko harreman estua eragin zuen. Sorterriko euskara apalduz joan zen urteetan, bakaikuar batzuekiko etxarriarrekiko sarri ibiltzea hizkuntzari eusteko bidea izan zela ematen du.

96 Txepetxeren esanetan 45 urtetik gorakoek zekiten euskaraz 1970ean (1972, 34. or.) baina bistan da bazela hiztun gazteagorik ere. Dena den, erdalduntze prozesuaren hasiera 1940 eta 1945 bitartean ezarri zuen aurrerago (1972, 39. or.).

Urdiain da eredu dialektalaren egoera dela eta Burundan arretarik handiena eskatzen duen herria. Sakanako hizkeren gordailuetako bat izan da XX. mendean zehar eta euskara haurren artean nahiz kale giroan bizirik topaturik Nafarroako herririk euskaldunenetako bat zela adierazi zuen Sánchez-Carrionek (1972, 34. or.), baina euskalkiaren transmisioa Ergoienean edo Arbizun baino ahulagoa da gaur. Sarritan bezala emakumezkoak egon ziren berrikuntzaren erdigunean: 1970eko hamarkadan neska gazteek erdarara jotzen zuten karrikan, eta etxe batzuetan bederen gurasoek alabei gaztelaniaz egiten zieten⁹⁷. 1964tik herrian apaiz ziharduen Jose Mari Satrustegi euskara sustatzen ahalegindu arren, sortu zen arrakalak hutsuneak eragin zituen hizkuntzaren segidan. Nafarroan zehar hainbat aldiz deskribatutako faktoreak egon ziren Urdiaingo ahulgunearen oinarrian ere, batzuk besteekin hertsiki lotuak: euskararen aurkako giroak sorrarazitako autoestimu linguistikorik eza, erdararen indarrak eragin lilura, eta azken batean kanpoko mintzaira etxekoa baino hobea eta etorkizunaren giltzarria zelako ustea. Une jakin batetik aitzina, urdiaindar batzuen iduriko ez zuen merezi izan gurasoengandik jasotako mintzoa transmititzen saiatzea (Zuazo, 2010, 27. or.), euskarak gaztelaniaren aldean balio ez zuelako sentipena gogoan txertaturik⁹⁸. Luzaroan ez zen sentipen horri aurre egiteko kontzientziarik sortu, eta euskara estandarren garapenak ere ez omen du osorik erauzi. Oraino ez da Urdiaindik desagertu euskalkia edadekoa izatearekin lotu eta beste garai batekoen hizketatzat jotzen duen pentsaera.

65 urtetik gorako herritar gehienak umetako mintzoan aritzen dira, baina 80tik beheitiko emakumezkoek gaztelaniarako isuria dute. 50 urtetik 65era bitartean ere, eredu dialektala askok gorde duten arren, emakumeak sarriago aritzen dira erdaraz. Heldu zein adinekoek esaldi laburretan gutxienik haurrekin euskalkia erabiltzeko joera dute, baina gazteekin gizonak euskarara eta emakumeak gaztelaniara lerratu ohi dira. 40-50 urteko urdiaindar ugari euskaldunak dira baina ez dira gehiegi herriko mintzairari eutsi diotenak, arestian aipatu transmisio ahulguneak harrapatuak: hainbatek ez zuten etxeko hizkera ongi berenganatu eta gaur ez dira euskalki hiztun beteak. Aipatu adineko adiskide taldeetan oso hedatuta dago erdara, emakumeen artean batik bat; euskara transmititzeko kezka apalagoa izan da eta guraso askok gaztelaniaz edo batuan egiten diete seme-alabei; gutxik herriko mintzoan. Aita edo ama bihurtzean berrogeitaka urteko urdiaindar batzuk urrun samar utzitako hizkuntzara hurbiltzen saiatu dira, baina lanak dituzte haurren erreferentzia nagusia euskara izan dadin.

97 Aldaketa hark ez zituen mutikoak bete-bete harrapatu. Gure berriemailetako bat 1960 aldera jaiotako gizona da. 13 urte zituela, euskaraz ez hitz egiteko eskatu zion norbaitek adiskideekin Iruñerriko herri erdaldundu batean zegoelarik; isiltzeko agindutzat hartu zuen, ez baitzen haiekin erdaraz solasteko gauza.

98 Norberaren hizkuntzak balio ez izatearen sentipena maiz aztertu da gurean. Kasaresek dioenez (2014, 201 eta beste) Baztango zenbait euskaldun garbi ama hizkuntza ia gaitz bat balitz bezala ikustera heldu ziren kanpoko presioaren eraginez. Ikertzaile iruindarren hitzetan, «mintzairari lotzen zitzaizkion balioak hizkuntzaren jarraipenaren oinarrian daude» (2014, 198. or.). Urdiaindarre dagokienez, aipatu dugun sentipena joan den mendean inguruko sakanarrak baino euskaldunagoak izateak ekarri zizkien iseken ondorio izan daiteke; adineko askok dute gogoan euskaraz egin edo erdaraz gaizki moldatzeagatik irri egiten zietela eta ezberdin sentiarazi. Hala jokatzeko zutenak ez ziren beti urrunekoak. 1970eko hamarkadan, Altsasun, «*Ab ¿eres de Urdiáin? Pues no se te nota*» esan zioten erdaraz ari zen gure berriemaile bati. Sustraiak Urdiainen izanik kanpoan bizi eta herrira noizbehinka joaten ziren familia erdaldunduek hauspotu egin zuten sentipen hori; Iruñerriko antzeko gertaerak jaso ditu Kasaresek (2014, 180. or.).

Aldaketa 40 urtetik beheitikoen artean nabari da. Euskararekiko ardurara ageriagoa da eta lagunartean zein seme-alabekin herriko euskara erabiltzeko joera handiagoa dela ematen du; badira zailtasunak zailtasun euskalkia transmititzen ari diren guraso batzuk, ez gehienak. 30 urtez azpiko urdiaindarrak euskaldunak dira, eta euskaraz eskolatuak⁹⁹. Heldu askok baino euskararekiko jarrera hobea dute, eta badira egoeraren arabera eredu estandarragoan zein dialektalean aritzeko gai diren gazte eta gaztetxoak; bertakoa gurasoekin edo helduekin baliatu ohi dute. Egungo ume txikien aita-amek nerabeen baino kontzientzia handiagoa dutelarik, duela urte batzuk baino haur urdiaindar gehiago ari omen da herriko mintzoa etxean entzuten. Aurkiak badu ordea ifrentzua: eredu dialektalari eutsi dioten gazteak ez dira gehiegi, inguruko herrietara joaten direnean ez dute euskaraz egiteko ohiturarik, eta 16-17 urtez azpikoen solasean erdara da nagusi¹⁰⁰. Zortzi urtetik gorako neska-mutikoak ez dira maizenean ez herrikoan ez batuan aritzen, eta badira gurasoek euskaraz eginda gaztelaniaz erantzuten dutenak; erdarak aski nahasitako euskara entzuten da sarri haien ahotan.

Azken urteotan Urdiaingo hizkera sustatu edota hitanoa biziberritzeko kezka azalatu da eta ekimen batzuk jarri dira abian; zenbait nerabe, gazte eta helduk parte hartu dute. Hiru-lau urteko haur batzuei aita-amak herrikoan ari zaizkie mintzatzen. Ikusteko dago Urdiaingo euskarak (eta euskarak Urdiainen) atzo izandako makaltzea zenbateraino sendatuko duten gaurko ahaleginek.

Lan honetan zehar egin dugun sartalderanzko bidean Urdiain da hizketa nafarren azken muga. Altsasu guztiz euskalduna zen XIX. mendean¹⁰¹ baina gizaldi hondarrean trenbidearen inguruan hazi eta nabarmen ugaritu ziren behargin arrotzak; altsasuar askoren iduriko, soldata hobea zuten kanpotar haien erdara aberastasunaren hizkuntza zen eta etxeko euskara pobretasunaren bereizgarri (Satrustegi, 2003, 74. or.)¹⁰². XX. mendea hasterako itotzear zegoen belauneko transmisioa eta urtetik urtera gero eta etxe gehiagotan eten zen; 1910etik aurrera euskaldun hazitako oso haur altsasuar gutxiren aditza dugu eta 1920tik aurrerakoak, salbuespenak salbuespen, ez ziren gurasoen mintzoa ongi jasotzera heldu. 2000 eta 2010 artean desagertu ziren herriko euskara ederki menperatzen zuten gehienak, haien artean Joxe Garasa Lezea (2000), Ageda Zelaia Iriarte (2001) edota Francisco Gerriko Goikoetxea (2002). Hamarkada hartan guztiz bakandu ziren euskalki hiztunak (Erdozia, 2006, 11. or.); azkenak, auzaz, 2015ean zendutako Marino Arramendia Urrestarazu eta Ignacio Zelaia Lezea izan ziren. Gaztetan entzundako euskara pusketak gogoan izanik ozta-ozta emateko gauza diren adin handiko altsasuar gutxi batzuk daude, 85 urtetik goitikoak beti ere. Gure berriemaile nagusia 1925ean jaio zen; Arruazu eta Altsasuko aita-amek euskaraz egin

99 1987an Urdiainen D ereduaz ezarri nahi izan zenean alde adina guraso agertu zen aurka; ez zen Nafarroan kasu bakarra izan (Irurita dela eta, ik. Kasares, 2014, 196-197. or.). Gaur Urdiaingo eskola –Lehen Hezkuntza amaitu bitartekoa– euskara hutsezkoa da.

100 Euskara gutxiago entzuten da Urdiaingo karrikan Arbizun edo Etxarrin baino, eta horrek ez du mende honetan zehar hobera egin: % 53k zerabilen 2001ean eta % 44k 2016an (SHK, 2016, 27. or.).

101 1850-60etan sermoia euskara hutsean izaten zen herrian, eta telegrafoaz arduratzen ziren langile kanpotarrek hitz bakar bat ere ulertu gabe entzuten zuten (Fuertes, 1873, 73. or.).

102 Altsasu inguruan 1900 aldera langileak erakarri zituzten zenbait lantegi direla eta, ik. Zuazo (2010).

zioten, baina hark gaztelaniaz erantzun eta umetan ikasitako gehiena atzendu egin zuen azkenean. Olatzagutian are lehenago eten zen euskararen transmisioa; ez dugu 1908tik aitzina sortutako hiztunen aditzerik. Josefa Ezker Mikelez (1908-2003) izan zen ziurrenik herriko mintzoaren hondarreko lekukoa. Ziordian, azkenik, xx. mendea hasterako hondatua zen euskalkiaren segida; 1913an haur guztiak erdaldunduta zeuden¹⁰³ eta 1933rako gazteek ez zerabilten euskararik (Irigarai, 1956, 41. or.). Arabako mugako herri honen hizkera zaharra 1993an hildako Patxi González Mendigutxiarekin batera itzali zen.

6. HONDAR HITZA

Bi ideia nagusi nabarmenduko ditugu amaiera gisa. Batetik, Nafarroako mintzo tradizionalen arrastoa honako herri hauetan barrena topatu dugula, eta ez hegoalderago, 2020ko udan: Abaurregaina, Hiriberri, Orbara, Aria, Garralda, Luzaide, Mezkitz, Lintzoain, Zilbeti, Eugi, Iragi, Aritzu, Urritzola, Gorrontz-Olano, Iraizotz, Larraintzar, Ziganda, Beratsain, Muskitz, Zarrantz, Eraso, Goldaratz, Irañeta, Dorrao, Lizarraga eta Urdiainen.

Eremu horretan zeharreko mintzo gehienak oso ahulduta daude. Hamar herritik zortzitan bederen jarraipena etentzat eman daiteke. Hirutik batean, gainera, hizkera bera dago guztiz iraungitzez: hamahiru herritan baleko hiztun bakar bat edo bi topatu dugu¹⁰⁴ eta beste batzuetan eskuetako eriez zenbatu zitezkeen, Pirinioan eta Iruñe inguruko ibarretan bereziki. Hondar hiztun horiek adinekoak dira sarritan; batzuk bakartuta bizi dira, jaioterritik urrun edota umetako mintzoa atzenduxe. Noizbehinka, euskalkia ia guztiz ihartuta dagoen herrietan, belaunez belaun eutsi dion familia euskaldun beteren bat topatu dugu, gazteek neurri batean gutxienez etxeko euskara hartu dutelarik. Salbuespena dira.

Arakatutako herrien erdietan ere ez dago hizkera dialektala beretu duen 40 urtez azpiko hiztunik. Horrez gain, bada hagitz gazte euskalkidun gutxi duen herriren bat eta beste batzuetan 30 bat urtetik goitikoak dira guztiak, ondorengoen eredu estandarerako jauzia berehalakoa eta erabatekoa izan delarik. Tokian tokikoak gero eta leku ttikiagoa du duela hamarkada gutxi sasoiko zebilen ibar batzuetako gazteen artean, eta euskara batuarena ez ezik gero eta handiagoa da inguruko zenbait mintzoren eragina ere¹⁰⁵.

103 «Euzker-aldez», *Napartarra*, 1913-4-26.

104 Hiztun ziur bana identifikatu ahal izan dugu Usetxi, Gerendiain, Eltso, Arraitz, Atezko Hiriberri, Ziganda eta Irañetan; bina Aritzu, Larraintzar, Gorrontz, Jauntsarats, Imozko Latasa eta Madotzen.

105 Larraunen bereziki, nabarmena da gaur Gipuzkoa aldeko hizkeren itzala. Nafarroako eta beste herrialde batzuetako antzeko adibideak bildu ditu Ibarak (2018). Leitzaldean, Ultzaman edota Sakanan, bestalde, gurasoetako bat inguru euskaldunagokoa izateagatik tokian tokikoaren ordez aita edo ama horren mintzoa hartu duten seme-alabak sarritan dokumentatu ditugu.

Aezkoatik Sakanaraino, Nafarroako hizkera tradizionalen hegian barrena, dozena bat herritan bakarrik identifikatu ditugu eredu dialektala ongi jasotzen ari diren haurrak; herriren batean oso gutxi dira eta nekez bermatu ahal izango dute haren jarraipena. Euskalkia guztiz gibelka doan herriguneetan oso ezberdinak izan ohi dira adinekoen mintzaira eta eredu estandarren gurpilean hazitako gazteena; amildegia sortu da han-hemen eta kasu horietan zaila izango da biharko euskarak atzokotik edatea. Ikastegi batzuk eguneroko eredu batua lekuan lekuko ezaugarriez aberasteko ahalegina egiten ari dira baina irakasleen jatorri anitzak eta mugikortasunak oztopo handiak eragiten dituzte. Beste zenbait ikastetxetan ez da euskalkiaren arrastorik baliatzen.

Hitz guttitan errateko, gaur arte belaunez belaun hedatu diren mintzo dialektalak abiada bizian ari dira iraungitzen Pirinioan eta Iruñe inguruko ibarretan eta gibelka dabilza, aldeak alde, Imotzen, Basaburuan eta Larraunen. Sakanako herri batzuetakoak daude sasoikoen, baina horien jarraipena ere ez da erraza izango.

Azpimarratu beharreko bigarren ideia, aurrekoaren ondorio, aztertutako eremuan belaunez belaun transmititutako euskara izaten ari den aldaketa sakona da. Tokian tokiko hizkera asko higatu diren arren euskal hiztun kopurua ugaritzen ari da azken urteotan¹⁰⁶, galerak beste bide batzuetatik orekatu baitira. Orekatze prozesu horretan nabarmena da irakaskuntzaren eta gurasoen eragina. Eskola giroak aita-ama euskalkidunen seme-alaba ugari baturantz lerratzea eragin du zenbait eskualdetan, baina eskola giro hori bera ezinbesteko tresna izaten ari da euskalkia galzorian edo iraungia dagoen eremuetan belaunaldi gazteak euskarara hurbil daitezten. Eta hurbiltzeko funtsezkoa da halaber gurasoen jarrera; batez ere erdaldunak izanik edo euskara heldutan (berr)eskuaturik hizkuntza hori seme-alabengan sustraitzeko erabakia hartu duten gurasoena. Belaunez belaun euskalkirik jaso ez zuten aita-amen hautuei esker eta eredu estandarrean oinarritutako eskolaren bidez ari dira euskalduntzen hizketa nafarren eremu bazterreko gatzetxo ugari; han eta hemen itzaltzear dauden tokian tokiko mintzaireratik urrun, ezinbestean.

Horrenbestez, oraintsu artekoak ez bezalako euskara molde berriak nagusitu dira gaur Piriniotik Burundarainoko herri askotan; euskararen belaunez belauneko jarraipena ibarrean ibarreko mintzo zaharretatik urrun ari da eskuarki bermatzen. Egungo gazteak hartzen ari diren euskara gero eta anitzagoa da, osagai asko hainbat modutan konbinatuz eratua: eskolako batu hutsa edo herriko mintzoaren zipriztinak dituen, komunikabideetako, guraso euskalkidunen eredu estandarra, aita-ama euskaldun berriek ikasitakoa, beste eskualdeetako mintzoak, gutxitan baino ez norberaren herriko hizkera garbia. Garraldako euskara, Lizasokoa edota Uharte Arakilgoa duela mende

106 Abaurregaina eta Urdiain artean dauden herrietako biztanleen % 90 inguru zen euskaldun XIX. mendean (Irizar, 1973) eta % 54 baino ez 2001ean. Azken hamarkadetan, ordea, aldatu egin da joera. 1986 eta 2018 bitartean euskararen ezagutza ez da % 80tik jaitsi Baztan-Bidasoa-Larraun-Leitzaldean; Iruñe inguruko ibarretan eta Iruñerrian euskal hiztunak % 6 izatetik % 12 izatera igaro dira; Sakanan ere gora egin du ezagutzak (% 35etik % 42ra), are gehiago Pirinioan (% 15etik % 27ra) eta guztiz nabarmen zeharka aipatu dugun Pirinioaurrean, % 2tik % 20ra igarota (Nafarroako Gobernu, 2020).

bat edo bi nolakoak ziren galdetuta, orduko testu idatzietan oinarrituz zenbait erantzun orokor eman genezake. Besterik da gaur egungo Garraldako, Lizasoko edo Uhartte Arakilgo euskara era unibokoan finkatzea. Badaude oraino herri horietan euskalki hiztunak, baina askoz ugariagoak dira euskalkia ahuldu ostean hizkuntza arnasberritu dutenak, haien euskaldun izatean gero eta anitzagoak. Lan honetara ekarri dugun nafar hizkera tradizionalen egungo hego bazterrean, bereiz dabilta oro har tokian tokiko hizkera horien bizitasun maila eta euskararena bera.

Kasaresek adierazi zuenez (2014, 69. or.), Nafarroako euskararen egoerari buruzko XX. mendeko azterlanetan euskalkien galera dokumentatzera jo zen funtsean, horrela aldian-aldian murriztuz zihoazen hizkuntza mugak irudikatuz eta gibelatzea eguneratuz. Nekez balioko digute hemendik aurrera halako azterlanek eta atzoko muga dialektalek XXI. mendeko euskara nafarraren belaunez belauneko transmisioaren bizitasuna ulertzeko. Caminok (2015) Aezkoari buruz adierazitakoa baliatuz, Iratitik Andimendira bitarteko hiztun nafar asko –zer esanik ez hegoalderago bizi direnak– etxeko oihalekin ezin eta hango eta hemengoekin ari dira gaur soineko berria josten.

7. ERREFERENTZIAK

- Apalauza, A. (2012). *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernuak & Euskaltzaindia.
- Arana, A. (2004). *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Artzibarko aldaera. Hiztegia*. Donostia: Hiria.
- Artola, K. (1985). Ezkabarteko euskara, Iruñeko udal dermioaren ondokoa, Celedonia Zenoz andrearen ahotan. In E. Kortadi (arg.), *Aingeru Irigarayri Omenaldia* (96-112. or.). Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Artola, K. (2017). Erroibarko aldaeraren inguruan (5 – Esteribarko erdialdeko azpialdaera. Lehen erdia). *FLV*, 124, 299-354.
- Artola, K. (2019). Olaibarko aldaeraren inguruan (Bigarren erdia: erdialdeko herriak). *FLV*, 128, 387-436.
- Artzelus, A. (2019). Garaziko hizkuntza-aldakortasuna geografiaren, adinaren eta generoaren arabera. *FLV*, 127, 153-188.
- Azkue, X. (2000). *Hitanoa Zumaian*. Zumaia: Zumaiko Udala.
- Beraza, A. (2002). Hizkuntzaren transmisio naturala (lan argitaragabea). https://hiznet.asmoz.org/wp-content/uploads/2018/10/Beraza_Ainhoa.pdf helbidetik eskuratua.
- Bidador, J. (2001). *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1910-1920). Testu antologia (I)*. Iruñea: Iruñeko Udala.
- Bidador, J. (2003). *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1930-1936). Testu antologia (II)*. Iruñea: Iruñeko Udala.
- Bonaparte, L. L. (1863). *Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euskara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*. Londres: Standford's Geographical Establishment.
- Camino, I. (1997). *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernuak.

- Camino, I. (2015). Aezkoako ohiko mintzo zaharrea oinarrituz etorkizunerako hizkuntza sorburu egokiak etor daitezke. *Diario de Noticias*, 2015-1-18, 40-41.
- Cavanaugh, J. R. (2006). Little women and vital champions: gendered language shift in a Northern Italian town. *Journal of Linguistic Anthropology*, 16(2), 194-210. DOI: <https://doi.org/10.1525/jlin.2006.16.2.194>
- Dorian, N. (1981). *Language death. The life cycle of a Scottish Gaelic dialect*. Philadelphia: University of Pennsylvania. DOI: <https://doi.org/10.9783/9781512815580>
- Erdozia, J. L. (2001). *Sakana erdialdeko euskara*. Iruñea: Nafarroako Goberna.
- Erdozia, J. L. (2006). *Altsasuko euskara*. Altsasu: Altsasuko Udala eta Sakanako Mankomunitatea. <http://sakana-mank.eus/wp-content/uploads/sites/72/2014/07/Altsasuko-euskara.pdf> helbidetik eskuratua.
- Erize, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa, 1863-1936. Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruñea: Nafarroako Goberna.
- Etxaniz, P. (2001). Tratamenduen bilakaera, to eta no. *FLV*, 87, 225-234.
- Etxegoien, J. K., Xamar (2018). *Etxera bidean*. Iruñea: Pamiela.
- Fuertes, J. (1873). *El telegrafista del Sistema Weasthorne. La vida en Alsásua*. Madrid: M. Minuesaren inprimategia.
- Ibarra, O. (2018). *El euskera de ayer y de hoy: variación y contacto*. Iruñea: Pamiela.
- Iñigo, A. (2005). Juan Goikoetxea Zabalo, euskaltzain urgazlea, jaio zeneko mendeurrenean. *Euskera*, 50(2), 679-686.
- Iqbal, I. (2005). Mother tongue and motherhood: Implications for French language maintenance in Canada. *The Canadian Modern Language Review / La Revue canadienne des langues vivantes*, 61(3), 305-323. DOI: <https://doi.org/10.3138/cmlr.61.3.305>
- Irigarai, A. (1956). Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935. *Euskera*, 1, 41-46.
- Irigarai, A. (1965). La vieja lengua en Pamplona y alrededores. *Diario de Navarra*, 1965-11-21, 9.
- Irizar, P. (1973). Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca. Estudio lingüístico-demográfico. *BRSVAP*, 29, 1-3, 3-78.
- Irizar, P. (1992). *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional (Estudio dialectológico)*. Iruñea: Euskaltzaindia & Nafarroako Goberna.
- Izengabea. (1904). *Guía Eclesiástica y estado del personal del Obispado de Pamplona, en 1º de septiembre de 1904, mandado publicar por el Excmo. é Ilmo, Sr. Dr. D. Fr. José López Mendoza y García obispo de él*. Iruñea: Teodoro Bescansaren inprimategia.
- Jimeno Jurío, J. M. (1986). *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Kasares, P. (2010). 20 urteko nafar euskaldun hori (Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenetan). *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 76, 101-123.
- Kasares, P. (2014). *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarripena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- López-Goñi, I. (2002). *Nafarroa Garaiko ikastolen historia (1931-1982)*. Iruñea: Euskara Kultur Elkargoa.

- Maiora, F. (2018). *Euskera, lengua inteligible*. Egilearen argitalpena.
- Nafarroa. 4/2019 LF, otsailaren 4koa, Nafarroako Toki Administrazioaren erreformarako. *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 2019ko otsailaren 6a, 25. zbk., 1060-1079. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2019/25/2> helbide-tik eskuratua.
- Nafarroako Gobernua. (2020). *Nafarroako datu soziolinguistikoak, 2018*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua.
- Ondarra, F. (2005). Bakaikuko hitzak, esaerak etab. *FLV*, 100, 481-523.
- Ozaita, J. (2014). Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 91, 83-103.
- Sánchez-Carrión, J. M., *Txepetx* (1972). *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana.
- Santazilia, E. (2009). Luzaideko hizkuntz bariazioa. *FLV*, 111, 219-248.
- Satrustegi, J. M. (2003). Euskara Nafarroan atzo eta gaur. *Jakin*, 135, 73-82.
- SEI. (2002). *Lekunberriko Euskararen Kale Erabileraren Neurketa*. Andoain: SEI Kultur Elkartea. <http://www.iparmank.eus/fitxategiak/dokumentuak/testuak/lekunberriko-kale-erabilpenaren-neurketa2001.pdf> helbidetik eskuratua.
- SHK. (2016). *Sakanako hizkuntza-erabileraren kale-neurketa*. Andoain: Soziolinguistika klusterra. <http://sakana-mank.eus/wp-content/uploads/sites/72/2017/06/Kale-neurketa-2016-SakanaTxostena.pdf> helbidetik eskuratua.
- Zuazo, K. (2010). *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.

